

uk

192. zenbakia / 2011ko martxoaren 25a



Sekula bai!

ZUZENDARIA Itziar Lazkano KOREOGRAFIA Maitane Zalduegi

ERANDIO
ELIZATEKO UDALA



AYUNTAMIENTO DE LA ANTEIGLESIA DE ERANDIO
BIZKAIA

Erandio - apirilak 5 - 20:00 h.
Altzagako azoka zaharra
(San Jeronimo 13)



Sarrera
librea



Lander Otaola

Mikel Losada

Edu Gabiña

Galder Perez

Loli Astoreka



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia




Euzko Jaurlaritzaren
Gobernua

maitatu, ikasi, ari...
eskalaketa

17. ^{aek} korrika TREBIÑU-DONOSTIA
2011ko apirilaren 7tik 17ra

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Armetzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@dizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
ERREDAKZIOA: Zuberero Iturburu, Julen Nafarrate,
Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia,
Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martínez (94 491 13 37)
AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTANZTEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kulturako Saila
Departamento de Cultura

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. AixGetxo! Igo Kultura Sariak.
7. LEHEN ETA ORAIN. Getxo.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Gracia Chacon.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Negutegiak Uribe Kostan.
28. ARGAZKIA. Negua hondartzan, Sopelana.
30. BERBETAN. Arkaitz Estiballes.
34. FOTOGRAFIA. Uribe Kostako baserriak, Asier Mentxaka.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Laburbira.
43. MUSIKA. Iker Llona, *Mind The Gap* taldea.
44. LIBURUAK. *Haserretu zaitzete*.
45. KIROLAK. AmasestUK kirol irratisaioa.
46. ELKARRIZKETA. Mertxe Landera.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Cosmopolita kafetegia, Areetta.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Manolak Gorlizko jaitean, 1948.
54. AITORMENAK. Loreto Mauleon.

Azala: Asier Mentxaka


www.ukaldizkaria.biz



30 Arkaitz Estiballes

Berbetan

Santutxuko bertso eskolan urte luzez egindako beharrak lagundu zuen galdakoztarrek txapela lortzen.



11 Gracia Chacon



54 Loreto Mauleon



WWW.RENAULTLEIOA.COM

Leioa
RENTACAR
ibilgailu-aloakairua

Tf. 682 466 466
www.leioarentacar.com

Leioa Berri Auto
HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
Tf. 94 480 46 02

David Crestelo Kres

> Plasentia-Butron Museoko arduraduna

Izenak egiten al du izana?

Hainbeste gogoz kontra, gure senaiak badauka deitura ofiziala: 2010eko azaroaren 14an Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak Butroe ibaiaren bokalean dagoen badiaren izena aztertu eta Plentziako Badia dela ebazti zuen.

Baina izenak egiten al du izana? Plentziak eta Gorlizek lekuko badiari deitura emateko aldarrikapenak oraindik ere entzungai dira taberna zein kaleetan. Honen lekuko izan da orain dela gutxira arte Gorlizko hondartzako euste-horman zegoen pintada erraldoiak esaten zuena: "Gorlizko Badia"; edota egun, Plentziako Udalak, Edari Zahartzearen Itsaspeko Laborategian dauden edariei emango dien deitura: "Plentziako Badiako Ardoak". Hortaz, Euskaltzaindiaren irizpenak ez du polemika hau inola ere baretu. Are gutxiago, erakunde eta auzokoen arteko desadostasuna goritzen ari da eta dirudienez, adostasuna lortzea zaila edo ezinezkoa izango da. Udal-erri bi hauen arteko toponimia liskarrak, ezagunak dira Uribe Kostan. Hain ezaguna ez dena, herri biek munduan zehar beren izenak emateko tradizioa da, eta hurrengo lerrotan munduko hainbat txokok, elementu geografikok, museo batek, edota herri batek ere, Uribe Kostako udal-erri bi hauetan beraien deituren jatorria dutela azalduko da.

1842. urtean Juan Simon Cucullu Arrarte (1791-09-28) kapitain plentziarrak, Isidro anaiarekin batera, Argentinako San Antonio de Giles herrira emigratu zuen. Bertan, merkataritza etxe bat sortu zuten biek. Dirutza irabazten zuten heinean, lurrak erosten zituzten eta 1898an Juan Simonek lur horiek herentzian utzi zituen. Arrazoi honengatik, gaur egun Gorlizko Kukullu Bidea eta Sopelako Kukullu Kalea ezagutzeaz gain, Argentinara bidaiatuz gero, Buenos Aires probintziako Cucullu herririk ere bisita daiteke.

Filipinetara bidaiatzea nahiago izanez gero, Cebu uharterko Gorordo Etxea museoa aurki daiteke. Juan Isidro Gorordo plentziarrarena izan zen eta XIX. mendeko eraikin



batean kokatuta dagoen museo honetan, XIX. eta XX. mendeetako bizimodua eta bertako arkitektura erakusten da. Juan Isidro Gorordo, bere auzoko eta lagun askok egin zuten legez, jatorrizko herriarekin lotura galdu barik, Filipinetara joan zen merkataritzan eta komertzioan aritzeko asmoz. Juan Isidro eta beste plentziar batzuek ere jarraitu zuten Asiarako bidea, Pio Barojak idatzitako *La estrella del Capitán Chimista* eleberrian aipatzen da. Honetan, bai fikziozko zein benetako pertsonaiak

(Nikolas Olagibel armadorea, Igartua pilotua edo Cucullu kapitaina) nahasten dira. Behin merkataria aberats bihurtua, Juan Isidro ezkondu eta 6 seme-alaba izan zituen, Juan Gorordo gazteena Cebuko gotzain bilakatu zen.

Bestalde, Frantzisko Lopategi kapitaina, 1814an Cadizetik Limara Bigarreña fragatan zihoanean, bat-batean urautsi ingurune batean zeuden. Haien berri eman zuenez, itsasoko mapetan Lopategi Uharrri izena agertuko zen. ○

gu geu

Maitatu, ikasi, ari... euskalakari!

Uribe Kostan egun batzuk itxaron behar izango badugu ere (eskualdean Korrikak egingo duen ibilbidearen inguruko informazioa 9. orrian), apirilaren 7an 17. Korrika Euskal Herrian barna barreiatuko da. Heldu, gazte zein umeek luzaketak eginda itzarongo diote lekukoa. Aurten euskalakariei egingo die omenaldia AEK-k; baina, zeintzuk dira horiek? Euskalakaria zeu zara, UK esku artean hartu eta hamabostero ilusioz irakurtzen duzun hori; baita zu ere, Euskaltegian izena eman barri duzulako; okidegian "kaixo, egun on" bategaz hasten duzulako elkarrizketa, zeu ere euskalakaria zara. Pailazo bikote ezagun batek esango lukeen bezala, hizkuntza "pentsatu, sentitu eta ekiten" dutenak dira euskalakariak; maitatuz, ikasiz eta berba eginez eraikitzen baitugu euskara. Euskalakariak dira 192. zenbaki honetara ekarri ditugun lagunetako asko: Arkaitz Estiballes, Aketx Rojo, Loreto Mauleon e.a. Eurekaz izandako berbalditxoak irakurtzen dituzun bitartean, UK-kook luzaketak egingo ditugu.

UK-ko lantaldea

FADURA KIROLDEGIA (GETXO), 2011KO MARTXOA

Aixegetxo! Kultura Sariak! Martxoaren 21ean Aixegetxo! Getxoko Kultura Sariak banatu zituzten lehenengoz. "Udal-erriaren Kultura munda-
duaren hainbat arlotan, pertsonen eta ekimenen sorrutako jardueren lana, konpromisoa eta zabalkundearen aspi-marratzeko asmoagaz" antolatutako sariak direla azaldu zuen Imanol Landak aurkezpenean. Getxophoto, Garbi Losada, Fernando Velázquez, We are Standard, Willy Uribe, Jora Mas Ge, Bizkaiko Zubia, Itsaso Arana sumillera, Aitor Zabalgoizekoa, Xabier Uribe-Excebarria eta Algorotako Bertsolari Eskola izan ziren saridunetako batzuk. Hona hemen familia argazkia! ○ / Argazkia: Asier Mentxaka



Kopiak **SALGAI**

Martikoena 16, 2. solairua

Algorta (Getxo)

Alangoko Osasun Zentroaren alboan

Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena



Iraganez doa denbora* beti / ROMO

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > zer gelditu?



2011ko otsaila, Sopela

Testua: **Jone Uria**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Bisitatu nahi baldin badugu Sopela, hondartzara bidean Udaro bezela; aurki dezakeguna ez al da itzela? Pegatinaz nahiz eta estali horrela, esango nuke STOP seinale bat dela.

2

Pegatinak itsatsi eta egin alde, propagandazkoak zein zezeren alde; STOP-a estalita dago alde alde argazkikoa ez den nahiko nuke galde; gauza geldiezinak badauden seinale...

3

Seinaleei zor zaienez mila errespeto, baietz haserre egon bat eta besteko; baina funtzio bera ez al du beteko? Jendeak frenatuko badu bertan seko, pegatinak zerenak diren ikusteko!

* Doinua: Zer da gaur Donostian

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz



17. ^{dek}korrika TREBIÑU-DONOSTIA
2011ko apirilaren 7tik 17ra

> apirilaren 16an zeharkatuko du Uribe Kosta

Trebiñutik Donostiara Euskal Herria zeharkatuko du Korrikak apirilaren 7tik 17ra. Uribe kostara 16an iritsiko da eta eskualdea gurutzatuko du Erandiotik Lemoizera. Dagoeneko 17. Korrika dugu, *Maitatu, ikasi ari... euskalakari!* leloagaz ezagutarazi dute. Aurrean guztiaren ostean kilometroak egitea dagokigu orain, euskararen aldeko lekukoa eskuz esku pasatuz. Eta berotzeko zer hobe ekitaldi eta jaiak baino? Korrika Batzordeak lan eta lan dabilta ekimenak atontzen, Korrika aurretik eta Korrikaren egunean. Egun handia izango da eta jaialdiak egingo dituzte eskualdeko herri guztietan. Korrika goizeko 08:50ean sartuko da Erandion eta 14:15 aldera utziko du Uribe Kosta Lemoizetik. Bestalde, Korrikak antolatutako Euskalalip lehiaketan dagoeneko boza eman daiteke, Korrikaren webgunean: www.korrika.org. Boto gehien jasotzen dituzten bideoen artean aukeratuko du irabazlea epaimahaiak. "Ika, ika, ika... hemen dator Korrika!". o

¥ Erandio goikoa	10:37
08:23	¥ Berango1:25
¥ Erandi08:52	¥ Sopelana1:39
¥ Leioa09:38	¥ Urduli2:10
¥ Erromo / Areeta	¥ Plentzia2:27
10:11	¥ Barrika2:38
¥ Algorta-Andramari	¥ Gorliz2:59



Erandion sartuko da Korrika 08:50ean eta Lemoiz utziko du 14:15 aldera

**Korrika Uribe Kostan**

- **Apirilak 2, Sopelana:**
-Esaera zaharren txapelketa (11:00etatik)
- **Apirilak 5, Erandio:**
-Sekula bai antzerki-kabareta (azoka zaharra; 20:00)
- **Apirilak 7 eta 14, Romo:**
-7an Bertsomagia eta 14an Euskaloketa (Anaiak taberna; 20:00)
- **Apirilak 7 eta 14, Leioa:**
-7an Bertsorrunba (Ganeko taberna)
-14an Flamenkottakun (Ganeko taberna)
- **Apirilak 7 eta 9, Erandio:**
-7an Kantagunea (Altagako tabernak)
-9an Korrika afaria (Altaga eskola)
- **Apirilak 10, Sopelana:**
-Antzerkia: LKM (Kurtzio; 19:30)
- **Apirilak 15, Plentzia:**
-Triki-poteoa (Elizako plaza; 19:30)
- **Apirilak 16, Algortan Korrika jai:**
-Umeentzako berbena (Telletxe; 11:30)
-Paella erraldoia (Telletxe; 13:30)
-Erromeria (Telletxe; 18:00)
-Kontzertuak (Txorimalo Gaztetxea)
- **Apirilak 16, Leioan Korrika jai:**
-Txokolatea, jolasak (Ikeabarri; 11:00)
-Poteoa eta bazkaria (12:30 eta 14:30)
-Erromeria (Ikeabarri; 18:30)
- **Apirilak 16, Sopelan Korrika jai:**
-Erromeria (Udaletxeko plaza; 18:00)
- **Apirilak 16, Gorlizen Korrika jai:**
-Bazkaria (Arriolane; 14:00)

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

getxo > Enpresa eta Merkataritza elkarteak argazki lehiaketa abiatu du



Lehiaketaren oinarriak: www.getxoempresarialycomercial.com/es/actividad.php?p=51

Apirilaren 20ra arte irudiak aurkez daitezke Getxo Enpresa eta Merkataritza elkartearen argazki lehiaketara. Profesionalek zein hasi barriek parte har dezakete, baina argazkiek herrikoak izan behar dute. Getxo garaikidea adierazi behar dute: tokiko natura eta paisajeak, ondare artistikoa eta kulturala, bizitza soziala, enpresa jarduera, jaiak, gertakariak e.a. Partehartzaile bakoitzak bost argazki aurkez ditzake eta ondoko helbidera bidali behar ditu: concursofoto@getxocomercialyempresarial.com. Hainbat sari emango dute, eta argazki irabazleak, Getxoko Argazki Albuma liburua osatuko dute. Urteko azken lauhilekoan eskuratu ahaliko da liburu hori herriko dendetan eta Udal Bulegoetan. Profesionalek osatutako epaimahaiak aukeratu ditu. Getxo Enpresa eta Merkataritza elkarteak merkataritza, hostalaritza eta zerbitzuetako 400 enpresatik gora batzen du. 2002an hartu zuen gaurko izena, baina 1984tik daroa lanean. ○

bertsolaritza > udalekuetan parte hartzeko izena eman daiteke



Izena emateko: www.bertsozale.com edo 943 694 129

Maiatzaren 5era arte izena eman daiteke BertsoUdalekuetan. Bertsozale Elkarteak antolatu ohi ditu, “*udan gaztetxoek bertsozaleen eta aisialdiaren gozatzeko*”. Bertsozaleentzako udalekuak dira eta ez da beharrezkoa bertsoan jakitea. Ondo pasatzeko, lagunak egiteko eta bertsolariak ezagutzeko aukera aproposa da. Aurten bost txanda egingo dituzte, gehienak astebetekoak, uztailean eta irailean. Bidarrai (Nafarroa Beherea), Zerain (Gipuzkoa), Irañeta (Nafarroa), Arrazola (Bizkaia) eta Zuhatza (Araba) aukeratu dituzte egonaldiatarako. Argibide gehiago eskuratu eta izena eman daiteke www.bertsozale.com gunean edo Bertsozale Elkartera deituz (943 694 129). Ez dute zozketarik egingo, izena eman ahala osatuko dituzte txandak. Animatu eta bota bertsoa! ○



“Bizitzaren maisuak gara, baina bizitzen jarraitzen dugun segundo bakoitzean ikasle izaten jarraitzen dugu”. Info+ www.rhiannonartecelta.com

Gracia Chacon > Britainia Handiko Druiden Elkarteko Artxidruida

Berbaren Makila, Lughnassa, Awen, erritoak... guztiz arrotzak egiten zaizkigu gehienoi horrelako kontzeptuak. Artxidruidentzat, barriz, ohiko berbak dira. Kultura zeltaren 180 bat Artxidruida daude mundu zabalean. Irailaren 25ean, Euskal Herriko lehenengoa izendatu zuten, eta gainera, Uribe Kostakoa: Gracia Chacon Algortako auzokidea. Baina zer da zehazki ‘druida’ bat?: “*Bizitzaren maisuak gara, baina bizitzen jarraitzen dugun segundo bakoitzean ikasle izaten jarraitzen dugu*”. Artxidruidak, druidismoaren mailarik gorena dira: “*Gure buruaren eta inguratzen gaituen munduaren ezagutza sakona izan behar dugu, naturak ezartzen dituen erritmoakaz batera biziz*”. Asturiarra jaiotzez, txikitatik jaso zuen Chaconek mundu honen barri: “*Amamak beti esaten zidan: basora bazoaz sartu baino lehen, baimena eskatu, bestela basoaren izpirituak ez dizu bueltatzen utziko*”. 90. hamarkadan, Arturoren ibilbidea egiten ari zela, Terry Dobny Artxidruida ezagutu eta 10 urtez kultura zeltaren eskolak jasotzen ibili zen, Ingalaterran. Egun, druidismo eskolak eskaintzen ditu Zeanurin: “*Labirinto eskoletan, barbarako, zure bizitza aztertzen dugu. Ez zara galduko, zure burua aurkituko duzu*”. Heriotzaren ikastaro zelta ere antolatzen dute. Azaroaren 1ean, Samhain gauean hain zuzen, heriotza gonbidatu eta ikastaroan aulki bat hutsik utzi zuten. Edo agian ez zen hutsik lotu... ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es



BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Ibilbide historiko eta toponimikoak

Aditu talde batek diseinatu ditu aurten **herriko historia eta toponimia** ardatz izango duten ibilbideak; **apiriletik ekainera** egingo dituzte eta **taldeka zein banaka** eman daiteke izena

Bizarra Lepoan Euskara Elkar-teak laugarren urtez antolatu ditu **ibilbide historiko eta toponimikoak**. Aurten, **apiriletik ekainera arte** egingo dituzte eta **herriko aditu talde batek** diseinatutako ordu biko lau **ibilbide barri eskainiko dira**; **Betiko Getxo ibilbidea txirrundulaz egingo dute eta Andra Mari elizan hasiko da.**



Andra Mari elizan hasiko da *Betiko Getxo* ibilbidea

Herriko historia eta toponimia hobeto ezagutzeko aukera emango dute beste behin ere Bizarra Lepoan Euskara Elkar-teko lagunek. Apiriletik hasita eta ekainaren 30a arte, Getxoko auzo ezberdinetako leku izenak eta historia pasarteak protagonista izango dituzten ibilbideak egin ahal izango dira.

Aurten, herriko hiru adituk osatutako taldea, Bizarra Lepoaneko lagunakaz batera, izan dira ibilbideak diseinatzeaz arduratu direnak. Alde batetik, Josu Larrañaga filologoa eta linguista, toponimoak aukeratzeaz arduratu da. Beragaz batera, UK-ko kolaboratzaile dugun Armando Llamas arkeologoa Getxoko txoko ezberdinetako historia pasarteak batu ditu. Azkenik, Victoria Bengoa biologoa, biologia eta geologia aldetik, inguru-neak duen garrantzia islatu du.

Guztira lau ibilbide barri eskainiko dituzte. Alde batetik, *Betiko Getxo* izeneko, Andra Mari elizatik hasi eta Zientotoetxe kaletik, Azkorriko pinuditik eta Barinatxe hondartzatik pasa ostean, Getxoko kanpasantuan amaituko da. Txir-

rundulaz egingo dute lehenengo ibilbide hori. Bigarrena, itsas-ibilbidea izango da; Portu Zaharrean hasi eta Usategi, Kantarepe eta Arrigunaga bisitatu eta gero, Aixerrota inguruan amaituko da. Herriko hezeguneak hobeto ezagutzeko ibilbi-

«Lau ibilbide eskainiko dituzte eta bakoitza herriko inguru ezberdin batean mugituko da»

dea ere diseinatu dute; Fadura eta Bolue inguruan zehar ibiliko dira honetan izena ematen dutenek. Azkena, *Getxo berria* izeneko, Neguri, Gobela eta Romo inguruan egingo du paseoa.

Ibilbide guztietan herriko leku izenen eta historiaren inguruko informazioa emango dute; *Betiko Getxo* ibilbidea

izango da euskarazko toponimia landuko duena batez ere, inguru horretan leku izen esanguratsuak aurki baitaitezke.

Euskaraz eta doan izango dira ibilbide guztiak eta ordu biko luzera izango dute. Herriko B eta D ereduko ikastetxeek, Euskaltegiek, Berbalagun taldeek eta, orokorrean, herriko euskaldunek parte hartu ahal izango dute. Apirila, maiatza eta ekaineko sei zapatutan zein astean zehar egingo dira eta taldeka zein banaka eman daiteke izena elkarteko telefonora deituz edo e-posta bidez. Ikastetxe edo euskaltegien bitartez izena eman gura ez duten herritarrek, Udal Turismo Bulegoan aurkituko dute informazioa eta bertan eman ahal izango dute izena. Eurria egitekotan, alternatibak eskainiko dira. ○

Info+: 688 635 350 (bulego ordutegian)/
getxo.toponimia@gmail.com
www.bizarralepoan.org

CEDEMOS egitasmoa

Mugikortasun Iraunkorraren Garapenerako gunea



Errotatxu industrialdean dago CEDEMOS

Mugikortasun Iraunkorrerako Zentroa, CEDEMOS, zabalduko dute laster Errotatxuko industrialdean, Getxo eta Berango arteko mugan. Getxoko Udalak eta Emaus-Elkarte Kooperatiboak sinutako hitzarmenaren ondorioa da zentroa. I+G+Bren proiektua, aitzindaria da Estatu mailan hiru ikuspegigatik: jarduera (mugikortasun jasangarria), bazterketa arriskuan dauden udalerriko laguntzako enplegua sustatuko duelako eta eraikina irizpide jasangarrien arabera egin dutelako.

Egitasmoaren aurkezpenean udal iturriek aurreratutakoaren arabera, CEDEMOSen helburua ondokoa izango da: *“Mugikortasun jasangarriko zentroa martxan jartzea, Euskadiko zein inguruko lurraldeetako bezero publiko zein pribatuei*

mugikortasun zerbitzuen eskaintza zabala eskaintzeko”. Bizikleta mailegu automatizatua eta mugikortasun plataforma zerbitzu publikoak garatzea, aholkularitza eta mugikortasun jasangarriaren inguruko euskarri informatiboak sortzea izango dira zentroaren ildo estrategikoak. 1.052 metro koadro izango ditu eta, guztira, 1.188.250 euro inbertituko dute. Edan ez beste erabileratan euri-ura berrerabil-tzea eta zoru bero-emaileagaz berotzea izango dira, besteak beste, eraikinak izango dituen ezaugarri jasangarrietako batzuk.

2015era bitartean 28 lanpostu sortzea aurreikusita dago. Udalerriko herritarrek lehentasuna izango dute lanpostuak eskuratzeko; baita lan-gizarteratzeko zailtasun handiak dituztenek ere. ○

YOGA, TAI-CHI ETA CAPOEIRA DOAN

Getxo Kirolakeko abonatuak doako eskola izango dituzte apirilko zapatuetan. Hilaren 2an, yoga familiar egiteko saio berezia egingo dute 10:00etatik 11:30era. Faduran, 70 lagunek parte har dezake; izena bikoteka eman behar da eta heldu batek eta 14 urte azpiko batek osatu beharko dute bikotea. Apirilaren 9an, capoeira-eskola batean parte hartu ahal izango dute 40 lagunek 11:30etik 13:30era, Fadurako kiroldegiko kantxa estalian. Azkenik, 16an, tai-chi ikasteko aukera emango dute 11:30etik 13:00etara; azken honetan 25 pertsonak parte hartu ahal izango du. Interesa duenak Fadurako edo Gobelako jendea hartzeko bulegoetan eman dezake izena.


400 APARKALEKU BARRI ALGORTAN 2013RAKO

2011 eta 2013 urteen artean, Salsidu-Villaondoeta, Alango eta San Nikolas plazan (gaur egun eraikitzen ari den aparkalekuan) 400 aparkaleku barri sortuko dituela iragarri du Udalak. Salsidu eta Villaondoeta kaleen bidegurutzean, lurpeko eta txandakako aparkalekuak eraikitzeko izapideak aurten jarriko dituzte martxan. 194 plaza izango ditu eta lanak hasten direnetik 24 hilabeteko epea izango du amaitzeko. Bestalde, 102 plaza egokituko dituzte Alango auzoan; horiei San Nikolas plazako 105 plazak gehituko zaizkie. Azken hauek emateko baldintzak laster onartuko dituzte.

ZOLADURA EKOLOGIKOA GERNIKA PARKEAN

Neguriko Gernika parke barrutak, zoladura ekologikoa izango du, karbono dioxidoa eguratsetik batu eta bertako gas kutsatzaileak kentzen dituena. Horrez gain, umeentzako estalitako jolasgunea, kirol esparrua, bidegorri tartea eta berdeguneak izango ditu. Guztira, 15.500 metro koadro hartuko ditu parke barrutak. Lanak martxoko bigarren hamabostaldian hasi ziren; hauen bitartez Getxoko esparru publikoak barrutzeo prozesuari jarraipena emango zaiou.

Etxeart
Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



http://www.etxeart.com

Oihane Zabaleta > EMUN Lana Euskalduntzeko Kooperatibako teknikaria

“Gaztelaniadunei oso eroso jartzen diegu euskara ez erabiltzea”



Oihane Zabaleta. Info+: www.emun.com/hizkuntzazerbitzuak/telp

Banketxeko leihatilara joan, euskaraz galdetu eta “en castellano por favor” erantzuten digu langileak. Zelan egin aurre horrelako egoerei? Oihane Zabaletak (Urretxu, 1979) “TELP: Egunerokotasunean euskara... ahalik eta erosoan!” izeneko berbalditxoa eman zuen martxoaren 16an. San Nikolas Ikastolak antolatu zuen gurasoentzako berbaldia, irakasleak hiru eguneko ikastaroa egin ostean. Kataluniatik datorren mugimendua da TELP delakoa, baina Euskal Herrian gero eta gehiago zabaltzen ari dira EMUN kooperatibako lagunak.

—Nondik dator TELP ikastaroa?

—Kataluniako psikologo bik sortu zuten; psikologia konduktualean adituak dira eta hizkuntza kontzientzia dezente daukate. Betiko soziolinguistika iturrietatik haratago psikologia erabiltzeko beharra ikusi zuten. TELP berbak “Taller d’espai lingüístic personal” esan gura du katalanez. Tailerrak sortu zituztenean oihartzun ikaragarria izan zuen Euskal Herrian; gu euskarara moldatu eta ikastaroak gurean emateaz arduratu gara.

—Zer lantzen duzue?

—Autozentratu deritzogu egiten dugunari. Normalean hizkuntza aztertu dugunean, zein ingurutan gauden eta euskaraz gehiago egiteko zein aukera dagoen begiratu dugu. Militantzia handiagaz egin da behar Euskal Herrian eta jendea soziolinguistika arloan jantzi da batez ere. TELP ikastaroak kontzientzia daukan eta euskaraz gehiago egin gura duenari bideratuta daude. Jendeak pentsatzen du: “Ni saiatzen naiz modu batera edo bestera, baina arazoak ditut euskaraz egiteko administrazioan zein beste leku batzuetan”.

TELP-aren helburua non nago, zein aukera daukat eta horretarako zein baliabide erabil dezaket esatea da. Deseroso sentiarazi gaituzten egoera horietan, deserosotasuna murriztea bilatzen dugu; hizkuntza gatazkei aurre egitea. Hizkuntza jokabide asertiboa lantzen dugu.

—Adibiderik?

—Baliabide kognitiboak ditugu handienak. Euskal hiztun osasuntsuak lortzeko, ikasi duguna desikasi behar dugu; Frankismo garaitik hona hizkuntza boteretsua nola sartu den ikusten badugu, hizkuntza jokabide sumiso edo lotsatia barneratua

«Premia handia dago hiztunak armairutik ateratzeko»

dugula ikusiko dugu. Kognitiboki aurreiritziekin jokatzen dugu: taberna batean sartu eta hego amerikar itxura duen gizona ikustean, zuzenean gaztelaniaz egiten diogu berba. Gaztelaniadunei oso eroso jartzen diegu euskara ez erabiltzea. Horregatik, guk beste tresna batzuk eskaintzen ditugu, euskaraz eginda ere euskaraz jarraitzeko gogoia duen frogatzeko. Besteak ulertzen ez duela esan arte, sekulako hizkuntza eremu handia zabaltzen da. Bestalde, baliabide komunikatiboak daude; hizkuntza gatazken aurrean askotan hobe izaten da ez erantzutea haserretzea baino. Babes estrategiak lantzen ditugu. Premia handia dago hiztunak armairutik ateratzeko; Frankismoaren ondorio kaltegarriak pairatzen ditugu oraindik.

—Zelan joan da Ikastolako saioa?

—Hezitzaile bezala modelajea jorratu nahi izan dute; gurasoek eta irakasleek umeen aurrean esaten dutenaz gain, egiten dutena da garrantzitsua. Lan polita egiten ari dira zentzu horretan. ○

Letra arteko magia

Liburu azoka Algortako **Geltokia** plazan ikusgai **martxoaren 31tik apirilaren 3ra**



%10eko deskontua egingo dute liburuak erostean

Magiaren mundua hurbilduko du Liburu Azokak Algortara martxoaren 31tik apirilaren 3ra bitartean. Ohikoa den liburu salmenta eta argazki erakusketagaz batera, magiagaz lotutako ekimenak egongo dira lau egunetan zehar. %10eko deskontua egongo da liburu salmentan egunero; baita eskulan tailerrak, joko erraldioak, ludoteka eta sorginkeriarren txokoa ere. Horrez gain, “Nola aldatu den Geltokia plaza!” izeneko argazki erakusketatik ikusi ahal izango da azokak irauten duen bitartean.

Egunez eguneko egitarauari dagokionez, egunean euskarazko ipuin kontake-

tagaz hasiko da, 18:00etan. Bariku goizean jendaurreko irakurketa egingo dute ikasle getxoitarrek; arrastian, Tor Mago euskaldunak magia ikuskizuna eskainiko du 18:00etatik aurrera. Zapatuko egitaraua Getxoko idazleen liburu sinatzeagaz hasiko da, 12:00etatik 14:00etara luzatuko dena. 19:00etarako, familiarentzako magia ikuskizuna antolatu du Bizkaiko Magia eta Ilusionismo Elkarteak. Azkenik, Anabel Muro ipuin kontalaria egingo da domekan 19:00etan.

Barikuan eta zapatuan goizez eta arrastiz egongo da zabalik; egunean arrastiz eta domekan goizez. ○

ASTE SANTUKO BAPIRUKEN IZEN-EMATEA

Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak Aste Santuko Bapiruke koloniak antolatu ditu beste behin ere. 5 eta 12 urte bitarteko umeek J.B. Zabala eskolan egingo diren tailerretan zein egun bateko txangoetan parte hartu ahal izango dute apirilaren 18tik 20ra eta 26tik 29ra. Izena emateko epea martxoaren 30etik apirilaren 4a arte egongo da zabalik bazkideentzat eta apirilaren 6tik 11ra gainontzekoentzat. Astelehen, eguazten eta barikuetan 10:00etatik 13:00etara egin ahal izango da; martitzen eta egugetan barriz, 17:00etatik 18:30era.

Info+: www.bizarralepoan.org

ITZUBALTZETAREN ALDEKO PLATAFORMA

Itzubaltzeta Gaztetxearen Lagunak, Erreka-gane kaleko gazte gunearen aldeko plataforma sortu zuten martxoko lehenengo astean. 2010eko abenduan, Uraren Euskal Agentziak (URA) Gobela ibaian ekin dion proiekturako lurak desjabetzeko, milioi bi euroko kreditua bideratzea onartu zuen Getxoko Udalbatzak. Gaztetxea lanak egin gura diren eremuetako batean dago kokatuta eta, horregatik, gazteek “herriaren laguntza beharrezkoa” duela uste dute.

OSPATU ETA OROITU EUSKARAZ KANPAINA

Udalak ekitaldietarako gonbidapenak euskaraz egitera animatzeko kanpaina jarri du martxan laugarren urtez. “Ospatu eta oroitu euskaraz” izeneko kanpainaren barruan, zorion-txartel, gonbidapen eta oroiak ereduak jasotzen dituen liburu baten 200 ale kaleratu dira; horiek udalerriko 21 liburu-dendatan, paper-dendatan eta inprimategitan banatuko dira. Horrez gain, liburutegietan, euskaltegietan, Gazte Informazio Bulegoetan, ikastetxeetan, haurtzaindegietan eta udal egoitzetan egongo dira eskuragarri. Zerrendako establezimendu batzuetan, gonbidapenak eta zorion txartelak euskaraz hutsean egiten dutenei, %10eko deskontua egingo diete; euskaraz eta gazteleraz badira osterak, %5ekoa.

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Vicky Gomez > Musikoterapia irakaslea

“Musika adierazpenerako, askatasunerako eta norbera den bezalakoa izateko aukera da”

Gai bitxia lantzen ari dira Kultur Leioako ikastaroetan. Musikoterapia irakasten du Vicky Gómezek eta terapia ezezagunari buruz galdetu diogu.

—Zertan datza musikoterapia?
—Musikaren elementuak garatzeko tar-
tea da musikoterapia: soinua, erritmoa,
melodia eta armonia. Musika helburu te-
rapeutikoak erabiltzen da, osasuna era-
berritzeko. Abestiak egiten ditugu batzu-
etan, musika tresnakaz inprobisatzen du-
gu e.a.
—Nolakoak dira klaseak?
—Lehenengo egunean ikasleek galdete-
gia betetzen dute euren burua ebaluatze-
ko, euren burua nola ikusten duten jaki-
teko. Ikastaroak aurrera egin ahala, es-
pontaneoagoak eta adierazkorragoak
izango dira, egoera oso politak biziko di-
tuzte eta ahaztu egingo dute lehenengo
eguneko sentipena. Ikastaroaren amaie-
ran barriro egiten dugu ebaluazioa eta le-
henengoagaz konparatuz ikusten dira lor-
penak. Saiotetan adierazteko eta ateratze-
ko gai direna, eguneroko bizitzan islatuko
da gero. Ez da musikarik jakin behar.
—Zehazki zer lortzen du terapia honek?
—Zure ahotsa eta gurariak ozenago en-
tzunaraztea. Entzumena landuz, ahotsa



“Poz handia da pertsonak hazten eta bere burua aintzat hartzen lortzen dutela ikustea”

ateraz eta adieraziz, lotsak gaindi daitez-
ke. Berbarako, erosketak egitean lehen
ezin nion inori esan bere aurretik nengo-
ela, nire aurretik nahita igarotzen zenean.
Orain gai naiz adierazteko lehen barrira-
ko gordetzen nuena. Hori lortzen da mu-
sikoterapiagaz, eta askoz gauza gehiago.
Poz handia da pertsonak hazten eta bere
burua aintzat hartzen lortzen dutela ikus-
tea. Autoestima txikiagaz iristen dira ikas-
tarora, baina norberaren benetako balio-

az jabetzen dira. Komunikazio gaitasuna
zabalduta eta autoestima hobetu gura
duten guztiei zuzenduta dago musikote-
rapia. Saiotetan gero eta agindu gitxiago
ematen ditut, horiek musikaren bitartez
ematen saiatzen naiz, izan ere, zer egin
behar dugun esaten digute beti. Prozesua
da garrantzitsuena, ez helburua. Ikasleak
konturatzen dira musika adierazpenera-
ko, askatasunerako eta norbera den beza-
lakoa izateko aukera dela. ○

Idazteko trebetasuna

Ni gaztea nintzenean... **narrazio lehiaketan izena eman daiteke** apirilaren 28ra arte



info+: www.kulturleioa.net

Zenbatetan datozkizu burura txikitako eta gaztetako oroitzapenak? Lagunakaz tabernan zaudenean edota etxeokaz solasaldian historia gogoangarriak oroi-
tzen ditugu maiz. Ez al duzu sekula pen-
tsatu paperean idaztea? Orain baduzu
aukera; izan ere, *Ni gaztea nintzenean...*
Narrazio Lehiaketa abiatu du Udaleko
Kultura eta Gazteria sailak, hamabigarre-
nez. Lanak aurkez daitezke apirilaren
28ra arte.

Gura duen guztiak parte har dezake,
haur, gazte zein nagusik. Hainbat maila
dago: 18 urte arte, 19 urtetik 30 urtera,
31 urtetik 55 urtera, 56 urtetik gora.
Maila bakoitzeko bina sari banatuko
dute. Lehenengo saria: 250 euro, garai-

kurra eta diploma. Bigarrena: 125 euro,
garaikurra eta diploma. Gainera, 56 urte-
tik gorako mailan *Gaztetan* sari berezia
emango dute, D mailan saritu bako lan
onenari; 125 euro, garaikurra eta diplo-
ma emango diote.

Egile bakoitzak gehienez lan bi aur-
kez ditzake, euskaraz edo gaztelaniaz.
Gehienez sei orri izan ditzake bakoitzak.
Saritu bakoak, jatorrizkoak eta argitaratu
bakoak izan behar dute.

Narrazioak Kultur Leioan aurkeztu
behar dira, bertara joan edo postaz bidal
daitezke, Jose Ramon Aketxe plazako
11ra. Ekainaren 10ean banatuko dituzte
sariak. Lan irabazleak argitaratuko dituz-
te 2011ko Lehiaketa Liburuan. ○

UMORE AZOKAN LAU LAN EKOIZTEKO LAGUNTZA

Leioako Kaleko Artisten Azokan
estreinatuko dituzten lanen artean lau
ekoizten lagunduko du Udalak aurten ere,
Euskal Herriko hiru eta Gaztela eta
Leoneko bat: Deabru Beltzak taldearen *The
Wolves* lana, Kukai Dantza Konpainiaren
Karrikan, Markeliñeren *Anomalia Magnetica*
eta Destroy Producciones-Alicia Soto-
Hojarasca Danzaren *La Petite Voiture*.
Maiatzaren 12tik 15era ospatuko da Umore
Azokaren 12. edizioa. Azokako
arduradunen asmoa da “*sormen artistikoa
bultzatzea barreiapen, barrikuntza eta
konpromisorako toki gisa kalea erabiltzen
duten adierazpen horietan*”.

LUCRECIK ABESTUKO DU APIRILAREN 8AN

Album de Cuba diskoa aurkeztuko du
Lucrecia abeslariak datorren apirilaren 8an,
Kultur Leioako Auditoriumen. Felix Ramos
pianistak, Guelmi baxu-jotzaileak eta
Yonder perkusio-jotzaileak lagunduko dute
taula gainean. Kubatar musikaria zuzenean
entzuteko 15 euro ordaindu beharko da
sartzea. Kultur Leioan bertan eros daitezke
sarrera edota bere webgunean:
www.kulturleioa.net. Gaueko 21:00etan
hasiko da emanaldia.

info+: 946 072 570
edo www.kulturleioa.net

99 ERASOTZAILEK DUTE URRUNTZEKO AGINDUA

laz babesteko beste 20 agindu jaso zuten
Leioako udaltzainek, gehienak emakumeak
babesteko. Aurreko urteetan beste 79
agindu zegoen indarrean, horiek gehitu
zaizkie iazko 20ak. Beraz, dagoeneko 99
dira urruntzeko agindua duten
erasotzaileak Leioan. Erasotzaileen
jarraipenaz ez da aipamenik egin, baina
Udalak jakinarazi duenez, kasu gehienetan
babestu beharreko emakumeen etxera joan
ohi dira udaltzainak eta jarraipena ere
egiten dute telefonoz.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA



Carrefour

Viajes

Bidaia-agentzia berria Leioan

Estartetxe 19, Tf. 944 63 82 42

es_viajes1375@carrefour.com

Bidaiak guztien eskura



Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Blzkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Luis Felix Abel > Gidatze eraginkorra ikastaroko irakaslea

“Jendea harritu arren, askotan erregairik kontsumitu barik eroan daiteke autoa”

Modan dago azkenaldian gaia, krisia gora eta behera, erregai apur bat aurrez daiteke modu eraginkorrean gidatuz. Erandion apirilaren 15ean egingo dute ikastaroa, Luis Felix Abel dabil irakasle hara eta hona, beste irakasle batzuek batera.

—Kotxean erregaia aurrezteko gaia pil-pilean dago, zertan datza ikastaroa?

—Lau orduko ikastaroa da. Aurkezpenaren ostean 7 edo 8 kilometroko ibilbidea egiten dugu gidari bakoitzagaz birritan. Lehenengoan ohi bezala gidatzen du. Ondoren klase teorikoa ematen dugu modu eraginkorrean gidatzeko teknikak azaltzeko, eta berriro egiten dugu ibilbidea, baina teknikak aplikatuz. Itzuli bien arteko konparaketa egitean ikusten da kontsumoa jaitxi dela.

—Zeintzuk dira teknika horiek?

—Nahiko gauza azaltzen dugu, ezagunena martxa saltoa da. Egin daiteke, baina garrantzitsuena da abiadura beti berdin mantentzen saiatzea, ahal dela ere gelditzea ekidin behar da, bat-bateko azeleratzeak eta frenatzeak ekidin behar dira, ahalik eta martxa luzeenak erabili behar dira eta ibilgailuaren inertzia baliatu behar da. Martxa luzeak erabili behar dira neurri batean, batzuetan ez da



Ikastaroan parte hartzeko izena eman daiteke Gazte Informazio Bulegoan

posible oso luzeak sartzea, aldapan gora adibidez. Ezin utz daiteke abiadura gehiegi galtzen, oreka behar da. Jendea harritu arren, askotan erregaia ezer kontsumitu barik eroan daiteke autoa.

—Herri barruan ere aurrez daiteke?

—Ahal duguna egiten dugu herri barruan, gelditu behar izanez gero, gelditu besterik ez dago. Baina batzuetan ohiko martxak baino luzeagoak erabili daitezke eta aurrez daiteke, semaforoa berde harrapatuz eta aurrea hartuz.

—Edozein autogaz erabil daitezke teknika horiek, zaharrak ere bai?

—Auto modernoetan martxaren bat sartuta, 1.500 bira-minututik gora eta orduko 20 kilometrotik gora badoa, ezer azeleratu barik autoak ez du erregairik kontsumitzen. Gasolina eta karburantedun auto zaharretan, barriz, apur bat kontsumitzen du.

—Jende askok parte hartzen du?

—Arrakasta daukagu, erregaien garestitzeagaz eta, jendea animatzen da. ○

Ondarean Folk bosgarrenez

Lehenengoz izango da **arrastiz** Ondarean Folk jaialdia, **apirilaren 2an**, Alzaga auzoan



Hiru taulatik igaroko dira musikariak, Udaletxeko plazan, metro plazan eta itsasadar alboan

Apirilaren 2an ospatuko dute aurten-go Ondarean Folk jaialdia, betiko legez, Alzaga auzoan. Daborduko bosgarren edizioa da eta barritasun garrantzitsua dakar: lehenengoz arrastiz izango dira ekitaldi guztiak. Orain arte goizean hasi izan dira musikariak kaleak alaitzen. Ahaire Kultur Elkarteak antolatu ohi du jaialdia, Udaleko Kultura sailaren laguntzagaz.

Euskal Herri osotik iritsiko dira musikariak, urtero bezala. Arrastiko 17:00etan hasiko dira jotzen musikari danak kalez kale, eta hiru taulatan egingo dute geldiuena: Irailaren 23a plaza (udaletxe aurrean), metro geltokiaren

zabalgunea eta kaiaren inguruko oinezko-entzako gunean.

Baina kanpoko zenbait talde ere gonbidatu ohi dituzte, oraingoan Salamanca eta Aragoitik etorriko dira Mayalde eta Lurte taldeak. Azken horrek kalejiran parte hartuko du, eta erromeriaren ostean, kontzertua eman-go dute Udaletxeko plazan. Euskal erromeria 19:30ean izango da, eta kontzertuak, 20:30etik aurrera.

Jaialdiagaz herri bakoitzeko musikatresnen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak erakutsi gura ditu Ahairek, musikagaz mugak apurtu eta kulturek bat egiten dutelako. ○

KOMIKI LEHIAKETA, PARTE HARTZEKO AZKEN EGUNAK

Segi! Azken egunak dira Komiki Lehiaketara lanak aurkezteko. Apirilaren 15era arte dago tartea, Gazte Bulegoan aurkeztu behar dira. Kategoria bitan parte har dezakete 15 eta 35 urte bitarteko lagunek, komikia eta komiki-banda, eta bakarka zein taldeka. Lagun edo talde bakoitzak gehienez hiru lan aurkez ditzake mailako. Teknika eta gaia libreak dira, baina ez dute onartuko eduki bortitz, sexista edo arrazistadun lanik. Lan guztiak jatorrizkoak izan behar dute, eta argitarabakoak. Lan originala aurkeztu behar da. Hiru sari emango dute maila bakoitzean.

NOVIEMBRE KULTURALA, ARGAZKI BILKETA

Aurten hamar urte beteko ditu Lutxanako Noviembre Kulturalak eta Tirante Plataformako kideak, antolatzaileak, lanean hasi dira, zerbait berezia prestatu gura baitute. Urteurrena ospatzeko erakusketa egin gura dute Noviembre Kulturalaren hamar edizioetako argazkiakaz. Hori dela eta, laguntza eske abiatu dira; dei egin dieite ekimenaren argazkiak dauzkan orori, irudiok helaraz diezazkieten. Formato digitalean zein analogikoan, kopiak egin eta jabeei itzuliko dizkiete ondoren. Ohiko postaz edo posta elektronikoz bidal daitezke argazkiak.

info+: www.plataformatirante.com

SEKULA BAI KABARETA APIRILAREN 6AN, DOAN

Korrika 17 laster abiatuko da eta dagoeneko ekitaldiak egiten hasi dira herriz herri, baita Erandion ere. Hainbat ekimen prestatu du Korrika Batzordeak hemendik eta apirilaren 16ra arte, Korrika heldu arte. Horietako bat izango da antzerkia. *Sekula bai* antzerki-kabareta taularatuko dute apirilaren 5ean, Alzagako azoka zaharretan eta doan. Ez egizu aukera gal, 20:00etan hasiko da.

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ileta kalea 1 • ALGORTA

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitatarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

SEKEKO GAZTETXEA, URTE BETEZ ATEAK ZABALIK

Urtebete joan da Sekeko errotaren atean "ofizialki" zabaldu zirenetik, eta urteurrena ospatzeko, hamaika ekimen antolatu ditu Gazte Asanblada sopoloztarrak apirilaren 9rako. Txikienek emango diote hasiera egunari, goizean zehar haurrentzako puzgarriak izango baitira. Era berean, argazki erakusketa, graffiti-erakusketa eta herrikirolak antolatu dituzte egunaren lehen orduetarako. Eguerdian, tripazorriak dantzan dituzten txanda heldu eta herri-bazkaria izango da. Bazkalosteko bertso-saioaren ondoren, musikaren txanda helduko da, kalejira izango baita Sopolako kaleetan. Ekitaldia 20:00etan hasiko da, eta bertan Sekeko Gaztetearen ibilbidea eta etorkizuneko erronkak aipatuko dituzte. Era berean, urteurrenerako Gazteteke neska-mutilek prestatu duten kanta aurkeztuko dute. Amaitzeko, izen handiko kontzertuak izango dira: Bad Sound System eta El Trono de Judas. Zorionak eta gora bihotzak!

2011KO AURREKONTUAK ONARTU DITUZTE

Martxoaren 9an burututako udalbatzan, Sopolako Udalak 2011. urteko kontuak onartu zituen. Aurrekontua 15.996.665,26 eurokoa izango da, eta udal iturriek aipatu dutenez, "krisi testuinguruagaz" bat egiten dute. Udalak nabarmendu izan gura duenez, 2011n sopoloztarrei ezarriko zaien karga inposatzailea ez da handituko. Halaber, goi kargu eta udal langileen soldata izoztu da.

KEN ZAZPIK KONTZERTUA ESKAINIKO DU URKON

Sorkun eta Bide Ertzean taldeen lekukoa hartuko du apirilaren 1ean Ken Zazpi talde gernikarrak. Kontzertua Urko kiroldegian izango da, iluntzeko 21:30ean. Sarrerak 12 euro balio du, eta Kurtzion erosi ahalko dira: sopoloztarrek martxoaren 14tik 25era eta gainontzekoek 28tik apirilaren 1era.

Lanak ez du lotsarik! Esaera Zaharren XVIII. txapelketa izango da apirilaren 2an, Nikola AEK-k antolatuta



Giro ederra sortzen da urtero Esaera Zaharren txapelketan

Donostian donosti, eta gorostian gorosti! Herri bakoitzak bere ohiturak ditu, eta Sopelan galdu ezinezko hitzordua da Esaera Zaharren Txapelketa. Bere XVIII. edizioa ospatuko da apirilaren 2an, Nikola AEK-k antolatuta. Aurretik, baina, beharrezkoa izango da izena ematea, 10 euro taldeko, eta bertan 100 esaera zaharren zerrenda emongo zaio taldeari, buruz ikas dezan. Badakizu, asto batek baino bik gehiago dakie!

Goizeko 11:00 aldera hasiko da txapelketa, Sopolako herriguneko kale eta

tabernetan. Bertsolariek esaera zaharrei erreferentzia egiten dieten bertsoak botako dituzte, eta taldeek aipatua izan den esaera berbaz berba asmatu beharko dute. Arrastian, txapelketak Ander Deuna ikastolan jarraituko du, 18 euroren truke herri-bazkaria izango baita. Gosea, ona, zer jan euki ezker! Puntu gehien lortu dituzten taldeak finalera sailkatuko dira, eta Arkaitz Estiballes zein Alaia Martinek botatuko bertsoak asmatu beharko dituzte. Ez bazarete finalera heltzen, lasai, on egitetik ez dator kalterik! ○

Aketx Rojo > Mister Bizkaia 2011

"Lehiaketa hauetan ez da bakarrik itxura kontuan hartzen, hori %50 da"



Apirilaren 6an eta 7an Getxo Modan izango da, eta maiatzean Mister Euskadin parte hartuko du

Irribarre bategaz jaso gaitu Aketx Rojo sopoloztarrak. Mister Bizkaia izendatu zutenetik, ez dauka geldirik egoteko astirik, baina hala ere ez du irribarre gaitzen. Magisteritza ikasteaz gain, modelo eskolara joan eta beste hainbat konpromisorio aurre egin behar dio 19 urteko gazteak. Asteburuetan, gainera, gurasoen taberna alemaniarrean egiten du behar. —Lehenik eta behin, zorionak. Espero zenuen Mister Bizkaia bihurtzea?

—Hasiera batean ez, egia esan. 14 aurkari ginen eta lehiakortasun nahiko handia zegoen gure artean. Sorpresa izan da, gainera puntuazioa eman zutenean ez nintzen konturatu ni irabazlea nintzela. —Zer dela eta animatu zinen zure burua aurkeztera?

—Beti gustatu izan zait moda, interesa dut mundu horretan. Lagun bategaz joan nintzen agentziara, bera joan zen lan eske eta bere burua promozionatzen, eta akabuan neuk amaitu nuen bertan. —Kritika asko entzuten da mota hone-

tako lehiaketen gainean... zein da zure iritzia?

—Horrelako lehiaketetan ez da bakarrik itxura kontuan hartzen, hori %50 da. Balorazioaren erdia da zer nolako aurkezpena edo fatxada daukazu, zer nolako inpresioa emoten diezuen kanpokoei. Hori subjektiboa da eta nik zorzea eduki dut. Berba egiteko erraztasuna eta "porrea" ere kontuan hartzen da.

«Euskararen aldeko sentsibilitate berezia izan dut beti»

—Kontu profesionalak ez ezik, beste gai batzuek ere konpromisoak hartu dituzu, euskaragaz adibidez...

—Bai, euskararen alde desfilatu dut. Martxoaren erdialdean Korrikaren desfile umoretsu batean parte hartu nuen. Izan ere, euskararen aldeko sentsibilitate berezia izan dut beti. Horrek, modaren mundu honetan, mesede egin beharrean, agian atzera egin diezazukeen arren. ○

DIDAK hAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net



EGUNKARIAK prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Koro Etxebarria eta Eva Pablos > Nagusien Etxeko abesbatzako kideak

“Abesbatzako kide gehienok musikaz ez dakigu lar; ondo pasatzeko gogo eta ilusioagaz nahikoa dugu”

Apirilaren 2an Sopolako II. Abesbatzen Txapelketa izango da Kurtzio Kultur Etxean, 19:30ean. Eskualdeko bost talde arituko dira bertan, tartean Berangoko Nagusien Etxeko abesbatza. Orain dela urte bi sortu zuten taldea, eta hurrengo hiletan, taldeari izaera ofiziala eman eta ‘Beti Aurrera’ izenagaz bataiatuko dute.



Jose Ramon Duce, Koro Etxebarria, Iñaki Ayo eta Eva Pablos, Nagusien Etxe aurrean

—Hiru abesbatz-talde dago egun Berangon. Nagusien abesbatza sortzeko ideia nondik sortu zen?

—Orain dela urte bi Nagusien Etxeko urteurrena ospatu zen. Horretarako, musika eskolako irakasleak gidatuta, abesteko proposamena egin ziguten. Jende lar animatu zen, eta sortutako arrakasta ikusita, Udalarari irakasle bat jartzeko eskatu genion.

—Zenbat kide hasi zineten saioetan?

—Juana Mari hasierako irakasleagaz 20 bat izango ginen, denak Nagusien Etxekoak. Baina gero, abesbatza antola-tzen hasi ginean, kide gehiagok eman zuen izena. Egun, 40 baino gehiago gara, gizonak zein emakumeak.

—Gura duen edozein nagusik parte har dezake abesbatzean?

—Bai, atek zabalik ditugu gura duten nagusientzat, parte hartzeko ez da beharrez-

koa Nagusien Etxeko bazkide izatea. Saiok astero egiten ditugu, martitzenetan, goizeko 11:00etatik 13:30era gutxi gorabehera, baina gehienetan saio ostean guatekea egiten dugu. Gure artean oso giro jatorra dugu.

—Zein motatako abestiak kantatzen dituzue?

—Denetarik, zarzuelak eta guzti! Euskaraz eta gazteleraz abesten dugu: ‘Erribera’, Xalbadorren Heriotzean’, ‘Maritxu nora


zoaz’... Hainbat lekutan kantatu dugu: Txurdinagan, Leioan...

—Aurretik musikan inolako formakuntzarik jaso duzue?

—Gehienon lehenengo esperientzia da, nahiko hasiberriak gara denok. Musikaz ez dakigu lar, baina ondo pasatzeko gogo eta ilusioagaz nahikoa dugu. Fernando Botanz gure irakaslea oso jatorra da, animo pilo ematen dizkigu, batzuetan kantak kili-kolo urtetan diren arren. o

E. Balsera eta A. Alcalde > Bizkaiko mus txapelkunordeak

“Lau erregegaz jokatzek finala guztiz baldintzatu zigun”



Sopolako Sekeko Gaztetxean ospatutako kanporaketan sailkatu ziren Bizkaiko Finalera

Euskal Herriko III. Mus Txapelketa ospatu da azken hiletan, eta Uribe Kostak lehen mailako jokalaria izan ditu bertan. Horren adibide dira Enrique Balsera eta Antonio Alcalde urduliztarrak. Bizkaiko finalean txapelkunorde izan ziren, eta data errakuntza bat dela eta, Euskal Herriko finalean ezin izan zuten hordagorik bota. Hurrengo urtean izan beharko!

—Zer dela eta animatu zineten txapelketan parte hartzen?

—Kasualitatez izan da, kalean egin genuen topo eta Antonioren semeak gaia komentatu zigunez, azkenean animatu gara. Euskal Herriko txapelketan parte hartzen dugun lehenengo aldia da, eta mus-bikote legez ere aurretik ez dugu inoiz alkarregaz parte hartu. Baina ondo konpondu gara!

—Zelan baloratzen duzue txapelketa? —Esperientzia oso ona izan da, horrela-

ko ekimen gehiago antolatu behar dira, Uribe Kosta mailako mus txapelketa adibidez. Zortzi erregegaz jokatu beharrean lauz jokatzek txapelketa eta finala guztiz baldintzatu zigun, Bizkaiko alde honetan ez gaudelako ohituta lau erregegaz jokatzeko. Ondarroako finalean, bikote aurkaria ohituta zegoen lauz jokatzeko, eta hori igarri zen.

«Uribe Kosta mailako mus txapelketa antolatu beharko litzateke»

—Euskal Herriko finalean, barriz, ezin izan duzue parte hartu...

—Bai, pena izan da, baina data-errakuntza bat izan dugu. Finala martxoaren 13an izango zela uste genuen, eta 12an izan zen. Txapela eskuratzeko asmoz joango ginen Urruñara, gero Sopolako Sekeko Gaztetxean esekitzeko. o



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati
OPARIAK MODA GAZTEA

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopolana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

BARRIKAN ETA PLENTZIAN JAIEN KARTEL LEHIAKETA

Udabarria hasi eta jaietan pentsatzen hasia zara dagoeneko? Barrikan eta Plentzian erritmoa hartzen hasi dira jada, eta aurtengo jaietako kartel lehiaketa antolatu dute. Barrikan, apirilaren 16an bukatuko da epea, eta lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira. Saria 500 eurokoa izango da. Plentzian, barriz, epea luzatu dute, maiatzaren 2ra arte, eta kasu honetan txapeldunak 250 euro eskuratuko ditu. Bi herrien web-orriak kontsulta daitezke informazio gehiago lortzeko.

MITOLOGIARI BURUZKO ERAKUSKETA PLENTZIAN

Sugar, Atarrabi, Mikelats... oraindino ez dituzu euskal mitologiaren pertsonaiak ezagutzen? Goñi Portalen argazki eta marrazki erakusketa izango da apirilaren 15era arte, Sorginzulo talde bilbotarrak antolatuta. Aukera parebakoa kondaira zaharrak ezagutzeko!

SEI SEMAFORO JARRIKO DITUZTE BARRIKAN

Auzokideek egindako eskaerei erantzunez, Aldundiko Herri-Lan Sailak sei semaforo ezarriko ditu Barrika zeharkatzen duen BI-2122 errepidean. Orain arte, Mekañozeke sarreratik Ametzaga auzora arte ez da inolako zebra biderik egon, eta oinezkoek ezin zuten errepidea gurutzatu. Udalak, 174.000 eurotako aurrekontuagaz, espaloiak eraikiko ditu zebra bideen inguruan, Bizkaibuseko autobus geltokietatik gertu.

URDULIZ

Trenbide-pasagunea lurperatzeko akordioa lortu da



Hasieran aurreikusitako 900 metroko trenbidea lurperatu beharrean, 530 metro lurperatuko dituzte

Azkenean heldu da Urdulizko trenbide-pasagunea lurperatzeko akordioa. Azken hilabetetako tira-biren ostean, Urdulizko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzak ados jarri dira, eta 16 milioi euroko aurrekontua izango duen proiektua sustatuko dute. Finantzaketa, eztabaida iturri nagusia, Garraio Partzuergoaren esku lotuko da.

2012. urtean hasiko dira lurperatze-lanak. Hasieran, 900 metro lurperatzea aurreikusi zuten, baina proiektu barriaren

arabera, 530 metrokoa izango da lurperatutako trenbidearen luzera. Modu honetan, kostuak ere merketuko dituzte, aurreko proiektuak 36 milioi euroko aurrekontua baitzuen. Etorkizuneko metro-geltoki barria ere lurpean lotuko da, eta obrek 22 hilabeteko epea izatea aurreikusi dute.

Urdulizko Udaleko arduradunak gustura agertu dira adostutako formulagaz, azkenean Udalak ez baitu obren finantzaketan lagundu beharko. ○

Mar. 28 - Api. 11

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

SOPELANA

► **Welcome to Palestina argazki erakusketa.** Plaza Beltza Kulturgunean. Martxoaren 31 arte.

PLENTZIA

► **Araldi kultur elkartearen argazki lehiaketako lanak.** Goñi Portalen. Martxoaren 31 arte.

URDULIZ

► **Euskal inauteriak.** Kultur Etxean. Apirilaren 1 arte.

GETXO

► **Roman Aginakoren akuarelak.** Algortako Kultur Etxeko aretoan. Apirilaren 2ra arte.

► **Gizatiar elkartearen elkartasun azoka.** Romoko Santa Eugenia Kultur Etxean. Apirilaren 4tik 8ra.
► **Antzezaleak taldearen tailerrak.** Algortako Kultur Etxeko erakustaretoan. Apirilaren 4tik 16ra.

MUSIKA

GETXO

► **Malvadillos.** Areetako Glass Kafean. Martxoaren 31n, 20:00etan. Doan.

► **Sam & Jam.** Algortako Satistegi Kafean. Apirilaren 7an, 20:00etan. Doan.

► **Pio Lindegaard eta Stanley Jordan.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Apirilaren 9an, 20:00etan. 12 euro.

SOPELANA

► **Ken 7.** Urko kiroldegian. Apirilaren 1ean, 21:30etan. 12 euro.

► **Abesbatzen jardunaldia.** Kurtzio Kultur Etxean. Apirilaren 2an, 19:00etan. Gonbidapenak Kurtzion.



Plentziatik abiatuko da martxa

► Martxa

Bizkaia benetan maite, apirilaren 2an eta 3an

Apirilaren 2an eta 3an zeharkatuko ditu Uribe Kosta, Ezkerraldea eta Meatzaldea "ingurumena erasotzen duten makroproiektuen" aurkako eta "Bizkaia defentsarako" martxa. Bizkaia Benetan Maite koordinadorak antolatu du, luraren defentsan diharduten zenbait taldek osatzen dute. Ekimenak oinarri bi dauzka: "ingurumena erasotzen duten makroproiektuak gelditzeko beharra" eta "makroproiektuak dituzten herrien erabakitzeko eskubidearen defentsa". Apirilaren 2an zeharkatuko du Uribe Kosta, Plentziatik Lamiakora, ondoren igaroko da Ezkerraldera eta Santurtzin egingo du gaua. Biharamunean abiatuko da Muskizerantz.

• **Non:** Plentziatik Lamiakora • **Noiz:** Apirilaren 2an, zapatuan

ERANDIO

► **Ondarean Folk.** Alzaga auzoan. Apirilaren 2an.

► **Bilbao Brass Quintet.** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Apirilaren 2an, 19:30etan. 2 euro.

LEIOA

► **Cesar Uceda sariketa, Leioako interprete gazteak.** Kultur Leioan. Apirilaren 2an, 20:00etan. Doan.

► **Lucrecia.** Kultur Leioan. Apirilaren 8an, 21:00etan. 15 euro.

ZINEMA

GETXO

► **Vicky vikingoa (euskaraz).** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Apirilaren 3an, 17:00etan. 2,10 euro.

URDULIZ

► **Gnomeo y Julieta.** Kultur Etxean. Apirilaren 9an, 18:00etan.

► **Camino a la libertad.** Kultur Etxean. Apirilaren 9an, 20:15ean.

BERANGO

► **Cristobal Molon (euskaraz).** Berango Antzokian. Apirilaren 10ean, 17:30ean.

ANTZERKIA

BERANGO

► **Anaki.** Berango Antzokian. Apirilaren 2an, 18:00etan.

ERANDIO

► **Sekula bai.** Korrika kulturala. Alzaga azoka zaharrean. Apirilaren 5ean, 20:00etan. Doan.

GETXO

► **Kontularien kluba.** Algortako Kultur Etxean. Apirilaren 8an, 19:00etan.

LEIOA

► **Cirque Déjà vû.** Kultur Leioan. Apirilaren 10ean, 18:00etan. 5 euro.

BESTEAK

PLENTZIA

► **Ludotekako Uda programan izen-ematea.** Goñi Portalen. Azken eguna apirilaren 5a.

► **Neguan irakurtzeko txokoak.** Astilleron eta pilotalekuan. Apirilaren 7an eta 14an.

GORLIZ

► **Aikido, funky eta tenis ikastaroetan izen-ematea.** Kultur Etxean. Apirilaren 6ra arte.

LEIOA


► **Liburujatun lehiaketan parte hartzeko epe amaiera.** Kultur Leioan. Apirilaren 8a.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA




KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!


BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Greenhouse effect

Googlen "negutegi" jarri eta ingelesez "greenhouse" agertu zaigu. Baina argazkiotara ekarri ditugunak ez dira etxe berdeak, eskualdean aurkitu ditugun plastikozko azpiegiturak baizik. Negutegiak landa gune paisaiarako zein ekoizpenerako kaltegarriak direla uste du zenbaitek; beste batzuek barriz, beharrezko deritze. Zoritxarrez Amalurri iseka egiten jarraituz gero, Uribe Kosta bera negutegi bihurtuko dugu.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Negua joan da eta

Sopelako hondartzan

Neguan ere ibilaldi ederrak ematen ditugu hondartzan, haize freskoa sumatzen dugula aurpegian eta kresalaren usaina datorrigula, Sopelako Arriatera hondartzan otsailean hartutako irudi honetan bezala; izan ere, itsaso alboan bizi gara. Dagoeneko atzean utzi dugu neguaren gordina eta udabarria loratzen hasi da. Horregatik, hilabete batzuk igaro arte ez dugu barriz ikusiko gisa honetako irudirik gurean; laster jendez pilatzen hasiko dira gure hondartzak, eguzkiaren epela azalean gozatzeko. Udabarria dator, orain penak astindu eta irri egin ...*Negua joan da eta.*

ASIER MENTXAKA

[berbetan]

Gizon handia, tamainaz eta bertsokeraz; hori erakutsi zuen Arkaitz Estiballesek (Galdakao, 1977) abenduan ospatu zen Bizkaiko Bertso Txapelketan txapela buruan janztea lortu zuenean. Bilboko Kalderapeko tabernako atarian topo egin dugu, gurditxoan doan txikia goxo-goxo lo duela aldamenean. Txapelketako fokoek, argazki eta bideo kameraren flashak hurbildu dizkiote azken boladan; asteburuetan kotxeak kilometro asko egiten dizkio bertso-afaritik bertso saiora. Hala ere, Santutxuko Bertso Eskolako lagun izaten jarraitzen du danaren gainetik. Bertsolari on bezala ezetz esaten ez dakenez, Sopelako Esaera Zaharren Txapelketan izango dugu apirilaren 2an.

Arkaitz Estiballes

Bertso eskolan hazitako txapelduna

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zelan heldu zinen bertsoaritzara?

—Ama AEK-ko irakasle zen. Euskaltegitik Amurizaren liburu bat ekarri zuen “Zu ere bertsolari”. Baina, batez ere, Ikastolan bertan jolas moduan, irakasle batzuek lagun taldetxo bat hasi ginen bertsoan. Anekdotan moduan beti kontatzen dut tartean Oier Zearra pelotaria zegoela, nire koadrilakoa; han ibiltzen ginen Oier, bere anaia eta koadrilatxo bat bertsoan, jolas moduan. Bertso batzuk prestatzen genituen, beste eskola batzuetara joaten ginen, han kantatzen genituen... nik uste dut gerora jarraitzearen arrazoia hori izan dela, bertsoa jolas moduan bizi izan dugula. Ikastolan gustua hartu nion; Galdakaon bazegoen bertso-eskola bat, Jon Enbeita eta Kepa Urrutikoetxea zeuden bertan irakasle. Han batzen ziren orain idazle ezaguna den Julen Gabiria eta beste koadrilatxo bat. Han hasi ginen bertsoan. 16-17 urtegar Santutxuko Bertso Eskolara etortzen hasi nintzen; geroztik nire bertso ibilbidea bertan egin dut. Astero-astero

Santutxun batzen gara. Momentu horretan Galdakaotik hurbilen zegoen bertso eskola hasi zen, Santutxukoa. Bazegoen Algortako bertso eskola ere martxan, Mungiakoa ere bai; baina komunikazio aldetik errazena iristeko Santutxukoa zen. —**Jolas moduan hasi, baina gaur egun ogibide duzula esan daiteke.**

—Ogibidea ez da. Bertsoaritzaren munduan, Bertsozale Elkartearen egiten dut behar; hezkuntza arautuan ari naiz lane-

momentu honetan Bizkaian 30 bat herritan egongo gara eta guztira 4.000 ikasle izango ditugu. Ordu eskolarretan joaten gara eta bertsoaritzara lantzen dugu.

—**Eskola batzuetan ezagunak izango zarete, baina besteetan erabat arrotzak.**

— Bai. Guk ez dugu bertsolariak ateratzeko egiten; gure kulturaren zati bat erakutsi eta hizkuntza lantzeko egiten dugu. Erdalguneetan behar handia egiten dugu; Enkarterrietan orain gutxi sortutako

“Ikastolan jolas moduan, irakasle batzuek, lagun taldetxo bat hasi ginen bertsoan; tartean Oier Zearra pilotaria”

an, ikasleei bertsoaritzara ematen. Aurten murrizketan nago, haurrak zaintzen ibiltzen naiz goizetan. Bertsoaren ingurua badaukat ogibide; baina, egia esan, bertsoaritzatik bakarrik bizitzea ez da erraza. —**Eskoletan zertan datza zure beharra?** —Bertsozale elkarteak akordioak ditu hainbat herritako ikastetxeekin eta

bertso eskola gure gerizpean sortutako eskola da. Saiatzen gara zaletzen direnei aukera ematen herrian bertan bertso eskola sortzeko; baina ikastetxeetan egiten duguna hizkuntza eta baliabide sozialak lantzeko da batez ere.

—**Txapelketari helduz... daborduko ostea pasatuta ala oraindino nabaritzen**



dituzu txapelaren ondorioak?

—Orain ondorio diferenteak nabaritzen ditut. Txapelketa bukatu eta jarraian batez ere resakarik handiena hedabideena izan zen; gero jendearen zorientzeak e.a. Orain beste resaka mota bat da. Asteburuetako agenda beteta daukat udara arte eta resaka polita da hori ere.

—**Kanpotik ematen du txapelketa aurreko eta osteko garaiak daudela zuentzat. Zuek horrela bizi duzue?**

—Txapelketak gura eta gura ez eragina dauka. Nik zorionez aurreko urteetan, txapeldun izan aurretik ere, suertea izan dut eta saio dezente egin izan ditut Bizkaian. Bai nabaritzen dut Bizkaitik kanpo gehiago kantatzen dudala. Jendeak nigan interesa duela nabaritzen dut; saioetarako dezente arinago deitzen didate eta saio biko egun batzuk ere tokatzen zaizkit. Karga hori nabaritzen da pixka bat.

—**Eta zuretzat; presioa ezberdina da txapelketa aurretik edo ostean?**

—Presio aldetik ez. Lehen egiten nuena egiten dut bertsotan. Bertsolaritza ez da objektiboa eta egunak egoten dira; batzuetan hobeto nago, beste batzuetan kili-kolo... baina presio aldetik ez dago aldaketarik. Erantzun behar izate bat badago; deitzen diguten lekuetara joan beharra dago. Neke fisikoa nabaritzen dut; asteburuak nahiko luzeak egiten zaizkit.

—**Hurrengoan txapela jantzi gura ez orduan?**

—Hainbesterako ez da; gustuz eramaten dan zama da, bestela ez ginatete aurkeztu ere egingo. Egia da hurrengo txapelketan ere erraz ez dela egongo; ahalik eta ondoren egiten joango gara.

—**Bertsolamintza jardunaldietan txapelketek bertsolaritzarengan duten eraginaren inguruan hausnartu zuten. Dirudien txapelketen filosofiaren kontrako bertsolari taldea badago.**

—Bakoitzak Txapelketa modu oso pertsonalean bizi du. Nik aitortzen dizut ez naizela oso txapelketa zalea. Baina heltzen denean, aurkeztu egiten gara. Txapelketak

badauzka bere inguruan gauza batzuk ikusten ez direnak, fokotik kanpo gelditzen direnak eta horietako bat da bertsolarioroi pilak jartzen dizkigula. Arrazoia izaten da zenbait bertsolari biltzeko; badaramatzagu 8-9 urte elkarrekin Larrabetzun biltzen Fredik, Etxahunek eta hirurok. Orduan bai nabaritzen dugu Txapelketa bakoitza pasatu ostean, emaitza dena-

“Txapelketak badauzka fokotik kanpo gauza batzuk eta horietako bat da bertsolarioroi pilak jartzen dizkigula”

delakoa dela, gure bertso nahiak gora egiten duela; bakoitzak gure buruari eskatzen diogunak gora egiten du. Txapelketak badauzka fokotik kanpo gauza positibo batzuk bertsolarientzat. Egia da azkenean txapelketa batek bertsolarien mailaketa bat egiten duela eta mailaketa hori bertsolarien merkatuarekin eta saioen banaketarekin lotzen dela. Txapelketan destakutzen duen jendeak saio batzuk izaten ditu. Baina ez du zertan izan txapela irabazi duenak; antolatzaileak gero eta gehiago bilatzen ari direna bertsolari espezifikoa dira, nortasun berezia daukatena. Beñat Ugartetxeak bertsokera berezia dauka eta ez du txapela irabazi; baina Bizkaiko Txapelketa honek saioak eman dizkio. Edo berdin Gipuzkoako finalean zortzigarren egin zuen Iker Zubeldiak.

“Bertsogintzaren nukleoa bertso eskolak izan behar du; badauzka aukerak eta baliabideak gura duen ildoak markatzeko”

Txapelketak ez irabazita ere bertsolari batzuei onurak ekartzen dizkio. Eta uste dut garrantzitsuena azken finean hori dela. Gu geu gara askotan txapelketari garrantzi handien ematen diogunak eta geuk kendu beharko genioke. Ordua heltzean ia denok parte hartzen dugula.

—**Fenomeno mediatiko moduan, txapel-**

ketak gizartean isla dira?

—Txapelketa ez dugu antolatzen bertsolari bat txapeldun ateratzeko bakarrik; horren atzean beste arrazoi batzuk ere badaude. Adibidez, Bertsozale Elkartek egonkortasun bat izateko, bai ekonomikoa bai prestigio aldetik ere. Nik uste dut, proiektu bat daukagula eta horren parte txapelketa ere bada. Duda barik, ekono-

mikoki autonomia bat ematen digu hurrengo urteetan proiektuak aurrera ateratzeko; elkarte bera ere egonkortu egiten du. Bertsolaritzak mediatikoki duen oihartzuna garrantzitsua da. Euskal Kulturako erreferente batek BECen Euskal Herriko final batean 13.000 lagun edo Bizkaiko finalean 4.500 lagun biltzea, oso garrantzitsua da. Ez bertsolaritzarentzako, euskalgintzarako ere. Ekitaldi gutxi daude hainbeste jende mugitzen dutenak. Alde horretatik uste dut ez garela akonplejatu behar. Gurago nuke herri honetan horrelako jardunaldi gehiago baleude.

—**Txapelketaz aparte, bertso eskoletan aspaldi ibilitakoa zara. Txapelketek bertsolarien maila epaitzeko aipatutako arriskua bertso eskoletan landu behar da?**

—Duda barik. Niretzat hala izan da.

Bertsogintzaren nukleoa bertso eskolak izan behar du. Bertso eskola batek badauzka aukera eta baliabideak gura duen ildoak markatzeko. Duda barik, bertso eskola baten barruan erabaki pertsonalak egongo dira, batzuk txapelketetan parte hartu gura izango dute, beste batzuk ez. Guk Santutxuko eskolan ikasleak dauzkagu

orain dela 12 urte bertso eskolan daudenak eta sekula txapelketa batean parte hartu ez dutenak; lagun artean kantatzea gustatzen zaie. Beste batzuk txapelketa iristean prestatu gura dute. Guk denei baliabide berdinak ematen dizkiegu eta asko berba egiten dugu gai hauetaz. Nik uste dut foro egokia dela; azken batean lagunarte bat da, nahiko kezka antzekoak dauzkagu, baina bakoitzak bere ibilbidea egin gura du bertsolaritzan.

—**Asko aldatu dira bertso eskolak?**

—Gurea ez asko. Santutxuko bertso eskola Euskal Herriko zaharrenetakoa da; 35 urte egingo ditugu laister. Normalean ikasle gazteak izaten dira bertso eskolan hartzen dugun jendea, jarraitu gura dutenak bertsotan ikasten; baita kanpotik Bilbora ikastera etorritako ikasleak ere, gipuzkoarrak eta nafarrak. Eta auzoko, bertako bertsolariak. Horrez gain, euskalgintza mundutik etortzen den jendea, euskategietatik e.a. Batzuk etortzen dira euskal giro batean bizitzearren. Alde horretatik, nahiko bertso eskola heterogeneoa eta kuriooa da gurea. Saiatzen gara bakoitzaren beharizanei erantzuten. —**Aktore batek esan zigun aurrekoan antzerkigintzan “esfortzu kultura” galdu egin dela. Bertsogintzan badago “esfortzu kultura”-rik?**

—Gure kasuan ez da asko nabaritzen galdu denik. Bertso eskolan, Santutxun, esfortzua etengabea da. Bilboko Udalak diru laguntza oso urriak ematen dizkigu; Aste Nagusian egunero bertso saioak antolatzen ditugu e.a. Buru-belarri ibiltzen gara. Azken batean bertso eskolan egiten dugun beharra borondatezkoa da. Kasu partikularrean, urtean zehar egiten ditudan saioen ehuneko handi bat ere hala da. Bertsolariak arrakasta badu alde batetik ere horregatik da, hurbilekoa eta hurbilerraza delako. Edozein gauzatarako bertsolariei deitzen zaie eta normalean bertsolariak ezetz esaten ez daki.

—**Txapelketa eta gero egindako elkarriketan honakoa esan zenuen bertsola-**

rien jardunari buruz: “Askotan autozentsuratu egiten gara, baina herri honetako jendea gara eta ideia horiek ditugu; gure herrian bizi gara eta nahi duguna esateko eskubidea dugu”.

—Autozentsuratu gutxi samar egiten gara. Baina, egia da herri honetan edozer gauza, zoritxarrez, ezin daitekeela esan. Nik Txapelketa bukatu eta txapela

“Tabernan politikaz egiten dugu berba, sexuaz, maitasunaz, gerraz eta bakeaz; bertsotan bardin egin behar dugu”

Ondarruko herriari eta Euskal Presoei eskaini nien; hori dela eta hurrengo elkarriketetan medio askok horri buruz galdetzen zidaten: “Ez duzu uste kaltegarria dela euskal kulturarentzat bertsolaritza politikarekin nahastea?”. Barregura ematen dit; azken batean herri honetako kultura laguntza gehienei buruz politikariek iritzi bat daukate. Batzuk edozein arlotan sar daitezke eta herritar xumeak aldirgurera bakarrik dedikatu behar gara. Adibide bezala jartzen nien kirolariena; denek oso gogoko dituzte Athletic-eko jokalariek, baina urtean behin Euskal Selektzioaren alde aldarrikapen bat egiten badute beti dago politika mundutik ahotsen bat esaten diena ez dutela nahastu behar kirola eta politika. Kuriooa da. Tabernan, lagunartean, politikaz egiten dugu berba, sexuaz, maitasunaz, gerraz eta bakeaz. Uste dut bertsotan ere berdinberdin egin behar dugula. Politika egitea ez da politiko profesionalen eskusibidadea. Esan gura duguna esateko eskubidea dugu; ematen du herri honetan beldurra daukagula pentsatzen duguna esateko.

—**Uste duzu noizbait mugak jarriko zaizkizuela bertsolariei?**

—Azken batean hori oso pertsonala da. Bakoitzak bere buruari gura dituen mugak jartzen dizkio eta gura duenari buruz kantatzen du. Nire kasuan askotan kritikatu naute horregatik. Adibidez fina-

lerdietan bakarkako gaian aprobetxatuen Zornotzako Jose Mari Sagardui “Gatza” presoaren larrutik kantatzeko. Noizbait kritikatu izan naute: “beti politika”. Baina 32 urte kartzelan daraman pertsona da; uste dut guztiz zilegi dela nik horrela sentitzen badut horri buruz kantatzea. Gero zein ondorio ekar ditzakeen? Herri honetan zenbait bertsolari behin

baino gehiagotan joan behar izan dira Madrilera deklaratzera, baina kazetariak bezala. Egunkarioak ere bai, Ikastoletako arduradunak eta sukaldariak ere bai. Hori da herri honetan bizi duguna; horregatik isildu ez dugu egin behar.

—**Eta antolatzaileen aldetik?**

—Ez dut uste. Herri txiki batean bizi gara eta denok elkar ezagutzen dugu. Nik ez daukat inongo arazorik; edozein pentsamoldeko jendearekin egoten naiz eta lagunak ere halakoak ditut. Errespetatzen ditut eta errespetatzen naute. Ideien gaitetik askotan beste balore batzuk daudelako. Gehiago da instituzioetatik presioak ailegatzen direla; Txapelketa garaian beti gora-beherak izaten dira. Autoridadeak igotzen dira sariak ematera eta publikoak txistu egiten die eta ez dute oso gustuko izaten. Gertatzen dena da jartzen duten dirua ez dutela jartzen euren poltsikotik, gure dirua ere bada jartzen dutena.

—**Amaitzeko mezurik bidali gura?**

—Gustatuko litzaidake azpimarratzea bertsolaritzan askotan txapelketak daukala fokalizazio handia, baina urtean zehar behar garrantzitsuena bertso eskolek egiten dutela. Guk gure eskualdean egiten dugun moduan, aprobetxatu Uribe Kostakoak zorientzeko, Algortako Bertsolari Eskolak egiten duen beharra. Zorionak hemendik beraiei eta... batuko garela! ○



Hutsik

Bai, hutsik daude Uribe Kostako baserri honek danak. Hara eta hona, gero eta baserri gitxiago ikusten da, lantzarrak eraikin handiz betetzen ari dira eta zaila gertatzen ari da betiko bizimodua gordetzen duten etxebizitzak topatzea. Arrazoiak anitzak dira, baina eskualdeko paisaia aldatuz doa. Paisaiakaz batera sektorea, familia antolakuntza, harreman sistema, elikadura, berbakera... baserriak arkitektura ikono apaingarria baino askoz gehiago baitira euskaldunontzat. Laster altxor bihurtuko ote dira? Beste gauza askoren antzera, gure esku dago hori ere. *“Ni bizi naiz baserrian animalien erdian...”*.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**











BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Laburbira abiatu da

9 film labur eskainiko ditu Euskarazko Film Laburren Zirkuituak 27 herritan



Laburbira iragartzen duen kartela

Apirilaren 16ra arte luzatuko da Laburbira, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioaren Euskarazko Film Laburren Zirkuitua. Euskarazko bederatzi ikus-entzunezko eskainiko dituzte aurtentzen, 27 emanalditan. Euskarazko film laburren urteko uzta ezagutarazi eta herrietako kultur eskaintza aberasteko helburua dauka zirkuituak, izan ere, "Euskarazko sorkuntza sarri ikusezina da, baina euskaldunontzat ere; euskaraz egiten den zinematik ez du promoziorik herri honetan", Topaguneak dioenez.

Saioa Aizpurua *Txintxetillaren Esku-titi*, Kepa Errastiren *Maritxu*, Trastakaren *Barrura begina*, Jon Artola-

ren *S@rtaldea*, Asier Altunaren *Artalde*, Kontraplano taldearen *Nire bista faboritoa*, Angel Aldarondoren *Ondar aboak*, Zapatilla Filmsen *Biak bat* eta Aitor Artola, Irune Gurtubai eta Ibai Vigil-Escaleraren *Blank Postcards* filmak dira eskainiko dituztenak; 2009

"Aukera parebakoa da euskarazko produkzioa ezagutarazteko"

eta 2010ean ekoitzi dituzte. Topaguneak ahalegina egin du "ibilbide luzeko egileak eta egile berriak kontuan hartzeko".

Lanen artean emango dituzte udazkenean Ermuan egindako Kamera-toian sortutako lan batzuk ere, urterotuz. Topaguneak antolatzen duen Ikus-entzunezko Rallya da Kamera-toia.

Bestalde, Laburbirako emanaldi gehienetan aukera izango da filmen egileak berba egiteko, "egileak eta ikusleak elkarrengana hurbiltzeko asmoz". Herri asko txikiak direnez, "gutxitan izaten dute aukera zinema bertan eskaintzeko", beraz, "Laburbira aukera parebakoa da euskarazko produkzioa ezagutarazteko", egileentzat zein ikus-entzuleentzat. ○

www.topagunea.org/laburbira



Abant

Basarrate 20 lonja 48991 (Alqorta-Getxo) Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

- Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa
- Ikaskuntzaren zailtasunak (idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)
- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

Iker Llona > Mind The Gap musika taldeko abeslaria eta gitarra-jotzailea

"Abesti originalak eta landuak egiten saiatzen gara, agian lanaren ondorioa da Gaztearen finalean egitea"



Apirilaren 14an jakinaraziko dute Gaztearen Maketa Lehiaketa irabazlea

Martxoaren 18an izan zen Gaztea irratien Maketa Lehiaketa finala eta Iker Llona berangoztarraren taldea izan zen finalean: Mind The Gap. Llonagaz berba egin genuen finalaren aurretik.

—Finalista zarete, espero zenuten?

—Ez genuen espero, sekulako poza sentitu genuen, izan ere, lehiaketa nahiko ospetsua da musika munduan.

—Zergatik aukeratu zaituztete?

—Ez dakit, bizpahiru urte daroagu buelataka, kontzertuak ematen eta maketak bidaltzen. Lan egin dugu. Abesti origina-

lak eta oso landuak egiten ere saiatzen gara, eta kontzertuetan islatzen dugu musika hori. Ez dakit, agian lanaren ondorioa da finalean egotea.

—Zergatik aurkeztu zineten?

—Gure lana eta esfortzua saritzegatik agian. Lehiaketa hauen bidez lortzen da jendeak gure musika apur bat ikustea eta entzutea, nolabait ezagutzera ematea inguru honetan.

—Duela pare bat urte sortu zenuten MTG, nola izan zen?

—Beste talde batetik sortu ginen, Haatik

taldetik; euskaraz abesten genuen. Taldekide bik taldea utzi zuten eta bertan behera lotu zen taldea. Baina aurrera jarraitu eta gure musikari beste buelta bat ematea pentsatu genuen. Orain ingelesez abesten dugu, agian britainiar rock garbia gehiago lantzen dugu. Lokalean abesten hasi ginen eta kontzertuak ematen.

«Itzela litzateke irabaztea, baina ahalik eta ondoen jo eta pasatu gura dugu»

—Britainiar rock garbia aipatu duzu.

—The Who, Rolling Stones, Oasis edota Stone Roses dira gure ispiulua. Amerikar eragina ere badaukagu, Pearl Jam edota Neil Youngena; gustuko duguna islatzen dugu gure musikan.

—Kontzerturen bat duzue begibistan?

—Ez, orain abesti barriak egiten gabiltza. Ezusteko honegaz topo egin dugu, baina bestela sortzen gabiltza.

—Zer izango litzateke irabaztea?

—Taldea moduan poz eta salto kualitatibo handia. Nahiko iskanbila sortu dugu inguruan finalera iritsita, irabazten badugu itzela litzateke, baina ez dugu horretan pentsatzen. Ahalik eta ondoen jo eta pasatu gura dugu. ○

diskoak

Distantzia nahikoa!
Solte
Musikherria



Bilbotarren lehen diskoa duzu hau. Euskarazko kantuetan salatzen dituzte bidegabekeriak, islatzen dute errealitatea eta kontatzen dituzte bizipenak. Kolaboratu dute: J.Sang (Governors), Jon (MAK), DJ Alf (MAK), Iñaki (Nuuk-at), Iñaki eta Christian. Formatu librean, abestiak jaits daitezke Musikherriaren webgunetik.

Gezurra ez da egia
Imuntzo eta Beloki
Elkar



"Triki-mundu espresibo anitza" dakarte Imuntzok eta Belokiak. Tradizioari loturiko kantuetan harrapatuko zaituzte dantza soltearen graziak eta energiak, baina bestelako abestietan, ideia garaikideak eta produkzio modernoa ere badira. "Erromeriaren arima elikatzen duen jakia da diskoaren altxorra".

Santa sangre
Los carniceros del norte
Gor



Rock gotikoa, postpunka edota death rock estiloak nahastu dituzte bigarren disko honetan. Zombie Estudiosen grabatu dute eta 13 abestik osatzen dute. 2006an sortu zen taldea eta 13 *cuchilladas* lana kaleratu. Orain disko barriaren *Kill Baby Kill* abestia doan deskarga daiteke Gor diskoetxearen webgunean: www.gordiscos.com.

etorri
eta
ikusii!

ORIXA

liburudenda

Alargorta 8 (Eskol Herria kaleko bar) Tf. 94 491 68 05 Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bixitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Haserretu zaitez euskaraz

Stephane Hesselen **Indignez-vous!** liburu arrakastatsua **euskarara itzuli dute**

Stephane Hessel (Berlin, 1917) Bigarren Mundu Gerran Erresistentziako kide izan zen, bere matxinadarako deiak bazterrak nahastu ditu: *Indignez-vous!* liburuak arrakasta handia lortu du publizitate kanpainarik barik. Urrian kaleratu zutenetik milioi bat ale saldu ditu Hesselek Frantzia. Hainbat hizkuntzataraz itzuli dute daborduko, eta orain euskaraz argitaratu du 32 orriko liburuxka Cenlit argitaletxearen Denonartean zigiluak; Inma Erreak itzuli du.

Hesselen iritzi XXI. mendearen hasiera ere erresistentziarako garaia da. *“Erresistentziaren funtsezko arrazoia haserre”* dela dio, eta egun gertatzen diren zenbait bidegabekeria aipatzen du: pobreen eta aberatsen arteko tarte gero eta

“Diruaren boterea inoiz ez da izan hain handia, baita Estatuaren gorengo mailan”

handiagoa; Lurraren egoera; paperik bakoei, etorkinei eta errumaniar ijitoei ematen zaien tratua; Erresistentziaren lorpenak merke saldu izana (pentsioak, Segurantzia Soziala e.a.). Bere ustez aurre-rapausoak egin dira 1948az geroztik, baina azken hamar urteotan *“atzeratu egin dugu”*. Dioenez, *“diruaren boterea”* seku-



Denonartean zigiluak argitaratu du euskaraz

la ez da izan *“hain handia, lotsagabea eta berekoia, non eta Estatuaren maila gorentan ere”*. Liburuagaz belaunaldi gazteei dei egiten die Hesselek *“Erresistentziaren herentzia eta helburuak biziberri eta heda ditzaten, benetako matxinada baketsu”* baten bitartez.

Denonartean zigiluak 1.000 ale kaleratu ditu, baina motz lotu direla uste dute, horregatik prestatu dute bigarren argitaldia. Bost euroan saltzen ari da *Haserretu zaitezte!* liburu dendetan. Inma Errea itzultzailearen iritzi liburuaren mezuak bat egiten du Euskal Herriko gaur egungo egoeragaz. ○

liburuak



Artzapezpikuaren bisita
Adam Bodor
Elkar

Unai Elorriaga getxoizarrak itzuli du fikziozko kontzentrazio eremu baten gorabeherak ardatz dituen lana. Agintariak ez dira naziak edo komunistak, baizik eta eliz hierarkia, eta apaizgaian polizia sekretua. Maisutasunez egituratutako kontakizuna, giro ilunean girotuta dago.



Bränskint
Goizalde Landabaso
Txalaparta

Europako iparraldean zein munduko beste edoizien tokitan egon daitekeen hiria asmatu du Goizalde Landabaso eleberririk onetarako. Huraxe da, hain zuzen ere, protagonista nagusia: hiria. Esperantza, desioa eta bizirauteko beharra nahasten da hirietan.

[kirola]

Eskualdeko kirola, uhinetan

Koska Irratiak Uribe Kostako kirolariei buruzko *ArnasestUK* irratsaioa emititzen du eguaztenero



Koska Irratiaren atea eta uhinak zabalik daude Uribe Kostako kirolarientzat

Orain arte bete barik zegoen hutsunea bete du Koska Irratiko *ArnasestUK* irratsaioak. Kirola egiteaz gain kirolaren gainean informatuta egon gura duenak galdu ezinezko hitzordua du eguaztenero, 21:00etatik 22:00etara. 108. FM-ko lagunek eskualdeko kirol talde eta kirolarien erreposoa egiten dute astero, betiere, oinarritzko kirolariei erreparatu. Izan ere, beste hedabide handi batzuetan tarterik topatzen ez duten Uribe Kostako kirolariek izaten dute euren lekutxo ArnasestUKn.

Irratsaio barria azaroan heldu zen uhinetara, eta geroztik hamaika dira bertatik pasa diren eskualdeko kirolari eta kirol taldeak: Kepa Acero surflari algortarra, Ane Tate Plentziako pala jokalaria gaztea, Jon Bilbao Getxo Rugbyko jokalaria, “Erromotarrak” aretoko futboleko kideak, Anartz Ugarte Uribealdeko rugby jokalaria, Javi Polo Urdaibaiko arraunlaria... Gurean hain ezagunak ez diren kirolari ere tartea eskaini diete Koska Irratiko kideek. Berbarako, martxoan euskal makila bo-

rroka izan zuten hizpide eta antzinako borroka mota honen sorreraz, ibileraz eta desagerpenaz aritu ziren. Martxoaren 8a aprobetxatuz, genero ikuspegia ere landu dute, eta emakumeek kirolean betetzen duten rolez aritu dira, historian zehar izandako eraldaketaz, gaur egungo egoeraz...

Lau hilabetetan eskualdeko hamaika kirolari elkarriketatu dituzte

ArnasestUK sortu barria den arren, ez da Koska Irratiko uhinetan entzuten den kirolari buruzko lehenengo irratsaioa. Aurretik, *Zelako kirol mozkorra* entzun zitekeen. Arduradunek aitortu dutenez, *“saio barri honeguz, entzuleakaz geneukan zorra kitatzera gatoz. Izan ere, badakigu zuetako asko eta asko kirolzaleak zaretela”*. Ganorazko eredu eta Maialen Berekoetxea, Jon Arako Peru Vidal, eta Fernando Rodriguez ganorazko esatariak topatu ostean, bueltan da Koska Irratiaren kirol magazina. Animo eta aurrera! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**KANTXA
KIROL
MODA**




350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Mertxe Landera > Zuzenbide Penaleko irakaslea EHU

“Natura eta animaliakaz dugun harreman motak ez garamatza leku onera”

Ekofeminismoa, animaliak eta zuzenbidea jardunaldia egin zuten EHUko Leioako kanpusean martxoaren 18an. Bitxia iruditu zitzaigun gaien elkarketa eta Mertxe Landera antolatzaileetako batengana jo genuen.

—Gai bitxia da jardunaldi baterako.

—Hiru zutabe desberdin dira, bakoitza bere esanahiagaz. Zelan harremanetan jarri? Antolatzaileak Zuzenbide Penaleko irakasleak gara, beraz, enfokea juridikoa izango da. Gure helburua da proposamen danak zelan gauzatu modu normatibo batean. Behintzat, ahalegin horretan aztertzen ditugu proposamenak, oraingoan ekofeminismoak proposatzen duena, egiten duen analisia. Ekofeminismoan biltzen dira ekologiaren problematika eta feminismoaren teknikak edo teoria. Parekatzen ditu natura zelan tratatzen dugun (edo dagoen naturaren gaineko dominazio eredu), eta emakumearen zapalkuntza. Azken batean, bi arlotan gauzatzen den dominazio bakarra dela dio, sustrai berberak dauzkaten dominazioak direla. Bestetik, animaliak ditugu, feminismoaren proposamenak badauzkalako animaliekiko inplikazio izugarriak: animaliak zelan tratatu eta zelako harremana eduki euren. Beraz, ekofeminismoak planteatzen dituen ondorioak oso sakonak eta interesgarriak dira. Ekofeminismoa ulertzeko modu asko dago, ez dago ekofeminismo bakar, zein pentsalari edo idazle, bakoitzak bere irakurketa egiten du.

—Zergatik antolatu duzue jardunaldia?

—Batetik, jardunaldiak beti daude presente gure eginkizunean unibertsitatean, egunerokoan; oso erakargarria izaten da horrelako bat antolatzea. Izan ere, klase-



Jardunaldiko antolatzaileak

an, denbora faltagatik, gai batzuk programatik kanpo lotzen dira, baina jardunaldietan, jorra ditzakegu. Urtero antolatzen ditugu, gaia ikertzen gabiltzanaren arabera izaten da. Azken urteotan animalien kontrako delituak ikertzen nabil eta juridiko-penalak ez diren zalantza asko agertzen zaizkit, filosofikoagoak direnak.

“Zalantza juridikoak argitzeko jotzen dut filosofiara, ideietara, arauak azaltzen dituzten zergatietara”

Horiek argitzeko jotzen dut filosofiara, ideietara, arauak azaltzen dituzten zergatietara. Natura ulertzeko edo animaliekiko harremanak ulertzeko moduan daude erantzunak, eta horiek aztertzen dituzte filosofoek. Horregatik gonbidatu dugu Alicia Puleo, Etika eta Filosofia Politikoa Katedradun ospetsua.

—Zer beste gonbidatu egon dira?

—Puleok hitz egin du aurrena, nik eman dut ikuspegi juridikoa. Arratsaldean mahai ingurua egin dugu animalismoaren munduan dabilen emakumeakaz.

—Zer helburu daukazue?

—Naturagaz eta animaliakaz daukagun harreman motak ez garamatzanez leku

onera, interesa piztu gura dugu ekofeminismoari buruz. Pozik nengoke danok informatzeko eta irakurtzeko interesagaz atera bagara, edota egunerokoan animaliakaz daukagun harremana berriz planteatuko bagenu, izan ere, gure jardunak eragina dauka beste izakiengan. ○

Fredi Paia

Martiko oilarra

Udabarrian sartu gara, hala esan euskuen martiaren 21ean. Martiak, urteko hirugarren hilabeteak, negu eta udabarriaren arteko jausia egiten dau. Aurreko alean ikusi gendun legez, artzain kulturagaz lotutako kontakizunek martia aro txarragaz lotzen dabe, apirilera heltzea zan artzainen guraria. Baina era berean, marti inguruan ospatzen dira lurraren itxartzeagaz lotutako erritu asko, euretarioko batzuk zezeilean hasten badira bere.

Zer edo zelan esateko, martiak urtaroen arteko zubilanik garratzitsuen egiten dau. Negu eta udabarriaren, lurraren lozorro eta itxartzearen arteko zubi lana egiten dau. Munduko herri batzuek, Kurduak esaterako, martiaren 21ean, udabarria hasten dan egunean ospatzen dabe urtearen hasikerea.

Gurean bere aldaketa sasoi honek garrantzia dauka eta martian jaiotakoei ezaugarri bereziak egotzen deutsez herri pentsakereak. Martian jaiotakoei *martizozo* esaten jake. Marti-zozoaren kantuak aro ona egingo dauala iragarten dau eta eguzkiaren urtekeragaz batera kantetan ei dau. Martian jaiotako txitek garaitiko beste danek baino lehenago egiten dabez arrautzak. Martian jaiotako oiloa besteak baino handiagoa egiten da eta arrautza gehiago ipinten ditu. Baina guztien artean bereziarena *martiko-oilarra* da. Lekukoen esanetan, martiko-oilarra sakratua da eta etxeoak babesteko indar magikoa dauka. Bada ezaugarri horreen barri emoten deuskun ipuin bat, eskualdeko aitaita-amamek Butroien lekutzen dabena. Etxe baten izenak urtetan dau kontakizun hau entzun dodan guztietan, baina aurreko aleren baten izandako gorabeherak dirala medio, ez dot barriro etxe edo pertsona izenik aiatuko.

Ba ei zan Butroiko etxe baten bizi zan mutil parrandazale bat. Gauero, parrandatik etxera bueltetan zanean, martiko-oila-



Butroe inguruan kokatzen dute *martiko-oilarraren* istorioa

rrak kantetan eban. Ondorioz, mutikoaren amak beti jakiten eban bere semea zein ordutan etxeratzen zan. Mutila kokoteraino egoan bere ibilerak salatzen ebazan marti-

“Mutilak arin ulertu eban ordura arte martiko oilarrak babestu ebala parte txarreko izaki eta izpirituengandik”

ko-oilarrak, eta halako baten pentsau eban: *Oilar zentaile hori hil in ber joat!* Eta ama etxetik kanpo *bendeje* edo ortuariak saltzen ebilen egun batez martiko-oilarra hil eban.

Pozik urten eban parrandan mutilak, behin martiko-oilarra hilda ez zan egongo eta amari zein ordutan etxeratzen zan esango eutsonek. Ederto baten igaro eban mutilak gaua, baina etxerantza etorrela, sorginen batzarleku ospetsua dan gaztelu osteko Margaltza mendian irrintzi edo *zantzoa* en-

tzun eban. Mutikoak beste zantzo bategaz erantzun eutsone berak entzundakoari. Bigarrena entzun eban handik gitxira, beragandik arean parajeago, horrer bere erantzun eutsone. Hirugarren zantzoa bere ondolik etorrela ikusita karraderan hasi zan mutila, etxera heldu guran. Amari deika hasi jakon sokorruka etxeke atea iregi ekion, eta hala egin eban. Semea etxean sartu eta atea itxi ostean eupelako kolpea entzun zan atearen aurka. Hurrengo goizean, esku baten bost atzamarren suzko markea agertu zan atearen kanpoko aldean. Mutilak arin ulertu eban ordura arte martiko-oilarrak babestu ebala parte txarreko izaki eta izpirituengandik. Mutila handik egun gitxitara hil zan *odola galdute*, iratxo, sorgin eta arimakaz aurkitzen ziranak hil ohi ziran legez.

Ordutik, martiko-oilarra hil eban mutikoaren etxeke atean burdinazko txapa handi bat dago atean, suzko bost atzamarren markea ostentzeko. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi

Hanburesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



UK Taberna

Mariandresena 1, Algorta



txakoli mota gane tx. txakolina

Leioa-Unbe errepeidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA

WWW.UNAITABERNA.COM

94 466 16 61

URGULL KALEA 2, (ALGORTA)



CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areetta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEBAL

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:

94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[gaurko aukera]

Cosmopolita kafetegia

Kaferik ospetsuenak Areetta erdigunean



Interneten bere txokoa dauka kafetegiak: <http://cosmopolita.info>

Betiko kafetegia da Cosmopolita edo *Cosmo*, jendeak esaten dion bezala. Besteren artean, krema-kafeari esker oso ezaguna da, "San Inaziotik ere etorri zaizkit kafea hartzena", esan digu Javier Barandiaran nagusiak; beste askok errepikatu egiten dute, oso gozoa ei dago-eta.

Betiko taberna eta betiko bezeroak, leialak dira. Kalea oinezkoentzako ipini zutenetik taberna barri batzuk zabaldu dituzte inguruan eta mesede egiten omen dio *Cosmori* ere: "Girotxoa sortu da inguruan, tabernetan ibiltzeko zonalde modukoa", horregatik, bezeroak banatu beharrean, gehitu egin dira. Tabernek berezitasunak eskainiz gero, guztiok aurrera egiten dugu Barandiaranen iritzi.

Berak 28 urte daroa *Cosmon*, baina

duela urte bi eta erdi barru du eta orain sarrera bi ditu, Andres Larrazabal eta Paulino Mendibil kaleetatik. Gainera, azken horretan beste terraza bat ipini du, irekia (Andres Larrazabal kalekoa itxia da).

Beraz, neguan zein udan, hotz ala bero, erre edo ez erre, kafea eta mokadutxo gustura jateko parada eskaintzen du Cosmopolitak. Izan ere, ratioak, gildak zein pintxotan trebeak dira.

Edana eta jana, dana ona, eta gainera, giro ederrean. *Cosmoko* paretetik Areetako antzinako argazki esklusiboak erakusten dituzte orain, Barandiaranen lagun baten aititek eginak. Ez da New York, baina Areetan badago giro kosmopolita. o

Andres Larrazabal 5, AREETA
Tf. 946 085 134



Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO



BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA




KONTXI ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñazu z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarrí 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA **HARTU TXANDA**

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak
Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

KOSKA
irratia 108 fm

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Lehen suhiltzaileek egiten zituzten egutegiak, baina gimnasioko lagun katxarroak txora-txora eginda zabilta. Erakutsi egiezu laguneci, eurek ere txoratu gura dute-eta.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Elurra urtuz doa, eguzkia berotzen hasi eta loreak urten dira, udabarria da! Zure barnean ere esnatu da poza eta irria, aste zoriatsuak biziko dituzu laguneciz inguratuta.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Ikasi egin behar da, bai, baina azterketetarako tarte luzea lotzen da oraindino eta zuk liburutegiko arratoia ematen duzu. Zoaz kalera haizea hartzea eta gozatu udabarria.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Beti lan eta lan, noiz hartuko duzu atsedena? Utz egizu aitzurra gaurkoz, bihar ere izango duzu-eta tartea soroa landatzeko. Utzi belar txarrak albo batera eta jan itzazu fruta barriak.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Asteburua kanpoan igaroko duzu eta lagun barriak egingo dituzu. Oso jatorrak izango dira, baina sorpresaren bat har dezakezu, itxura eta barnekoa beti ez datoz bat.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Gazte gara gazte! Hori uste zenuen zuk, baina Gazte Txartela aspaldi kendu zizuten, eta asteburuko parrandaren ostean nabari duzu. Deskantsatu...

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Gurasoen herrira joango zara, jaiak ospatuko dituzte eta. Mozorro lehiaketa irabaziko duzue lagunak eta saria emango dizuete, baina biharamunean... Nork gorde ote zuen?

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Enamoratu ibili zara orain arte, erabat liluratuta. Baina hilabeteak aurrera doaz eta zoragarria zen laguna, sofa-laguna izateko arriskuan dago. Piztu! Emaiozue elkarri behar duzuen.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Harry Potterren azkena irakurtzen zabilta eta laguneciz ez dakite ezer zuri buruz, liburuak jan zaitu. Kontuz ibili, Potter beti izango duzu oheburuan, lagunak nekatuz gero ordea...

META



(Irailak 17 urriak 16)
Lore sorta eder eta handia oparituko dizu ezezagun batek, nor ote? Zure ametsetako maitea? Pistak jarraitu eta laster topatuko duzu. Egon zaitetz prest ezustea hartzeko!

HAZIA




(Urriak 17 azaroak 15)
Exetik ia ez igarotzea ez da bidezkoa, baina gurasoak egun osoa ematea ere ez da ona, oreka topatu beharra dago. Eurek ere merezi dute eurentzako tartea, utz egiezu apur bat bizitzen.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Ene bada negu! Negua joan eta udabarri heldu da. Zure sasoi amaitu ote da? Ezta gitxiago ere! Denetarako gogoa duzu zuk eta aro guztietan moldatzen zara ederto. Aro barria, abentura barriak.



NORA EUSKAL HERRIA

Bideak zabalduko dizkigu gure lurraldeak miatzeko eta ezagutzeko.

Eskuratu KIOSKOAN:
Hilabetero 2,5€ ordainduta
BERRIA egunkariarekin batera

ETXEAN:
Harpidedun eginda, hilabetero etxean urtean 24€ ordainduta.
Kioskoan baina %20 merkeago.

Harpidetza egiteko:
TELEFONOZ: 943 30 35 54
POSTA ELEKTRONIKOZ: harpidetza@nora.aldizkaria.info
WEBGUNEAZ: www.nora-aldizkaria.info

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3				■						
4							■			
5			■						■	
6				■						
7										■
8		■				■				
9									■	
10			■							

Ezker eskuma

1. Balio handiko harri. 2. Pl., sabela husteko eragozpena. 3. Alderantziz, galdetzaile bat. Lasterka, korrika. 4. Urez beteriko aska. Aurritzia. 5. Herri hizkeran, zer. Eakoa. Lehenengoa. 6. Sagarrak-eta sakatu ondoren gelditzen den hondar. Beteak. 7. Nafarroa Behereko herri bateko. 8. Kontsonantea. Behinolako herri alternatiba. Eguzkia. 9. Galiziako hiri nagusia. Bromoa. 10. Txulapaingo herrixka. Atomoaren atal.

Goitik behera

1. Hiru edo lau. 2. Pl., indarra. Zesioa. 3. Piraten gustuko edaria bide duzu honako hau. Oinetakoaren aztal. 4. Kontsonante bikoitza. Estellerriko herri bateko. 5. Belar txarra. Osin. 6. Bortzirietako herri bateko. Behiaren antzeko ugaztun belarjale. 7. Ipar Euskal Herrian, inguru. Zazpi eguneko denbora tartea. 8. Pl., hotsaren berezko ezaugarriak. Kontsonantea. 9. Mahai-joko. Aezkoako udalerria. 10. Dardarak. Garai, aldi.

Soluzioa

O	E	L	K	U	N	S	I	U		
B	R	A	N	U	R	O	C	A		
V	I	K	E	S	V	K	L			
A	K	I	A	K	A	S	K	L		
A	R	T	A	R	A	M	A	V		
A	R	T	A	R	A	M	A	V		
K	A	S	A	S	E	A	K	P		
A	R	T	A	R	A	M	A	V		
R	E	R	A	S	K	A	B	E		
A	N	I	R	A	N	O	H			
A	K	A	N	I	R	A	N	O		
K	A	N	I	R	A	N	O	H		
I	X	I	B	I	R	A	R	H		

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein izan dugu Bizkaiko azken Bertso Txapelketako irabazle?

> Aurrekoaren erantzuna: Palestina
> Irabazlea: **Cristina Jauregi***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Euskararen aldeko zein ekimenetan egingo dugu korrika aurten?

- **Korrikan**
- **Saharako Maratoian**
- **Itziar Lopez de Uralden**

> Aurrekoaren erantzuna: Marimotots
> Irabazlea: **Haizea Sagarna***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA **NORA** EUSKAL HERRIA



hilabetekariaren sei hilabeteko harpidetza doan

SARIA **berria**



“zinema etxean haurrentzako DVD filmen laugarren bilduma”

Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



BLANQUI ELORRIAGAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

MANOLAK GORLIZKO JAIETAN, 1948

Herriko jaietako Santiago egunean, urte bitan izan zuten zezenketa gorliztarrek. Ematen du orduko agintari faxistek antolatutako zerbait dela. Eta horretarako ez zuten zezen plazaren beharrik. Bide nagusia itxi, bazterretan kamioiak eta idi gurdiak ipiniz; ikusleak babesteko oholak jartzen ziren. Zaldi gurdi baten eroaten zituzten Manolak Portalena jatetxeraino. Urrutia familiarena zen eta oso famatua garai hartan Uribe Kostan. Jatetxeko terrazatik euren ziren nolabait esateko zezenketaren buru edo. Terraza horretan ditugu argazkiko Manolak, behar den bezala jantzita: Manilako kapa, apainorrazia, mantila eta abanikoa. ○

Zutunik: Mertxe Martinez, Mari Dolo Corbera (GB), Begoña Zalbidea (GB), Lolita Enparanza
Makurtuta: Isabel Ormaza

LORETO MAULEON > Goenkaleko aktorea

“David Lynchen film batean lan egitea da nire ametssetako bat”

Testua: **Julen Nafarrate**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Exigentea eta alaia.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Black Swan pelikulan.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun?

Abeslaria izango nintzateke, beti gustatu izan zait.

Zure hautzaroko oroitzapen bat?

Txikitan bizi nintzen etxeko lorategian egiten genituen askariak.

Badakazu ohitura txarren bat?

Uf... gehiegi!

Aitor dezakezun bizio bat.

Izozkiak.

Zein da zure ametssetako bat?

David Lynchen pelikula batean lan egitea.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Bai, baina oraindik egon ez naizen leku berri gehiegi daude.

Animalia izango bazina, zein izango zinateke?

Txoria izango nintzateke, hegan egiteko.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Kaferik gabe.

Zerk ematen dizu beldurra? Zergatik?

Maite ditudanak galtzeak.

Parrandarik politenak non?

Madriren, gustuko ditudan taberna gehiegi daudelako.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Artikutza, leku oso polita delako eta oroitzapen onak ekartzen dizkidalako. o



Korriko ekitaldiak

KORRIKA Getxora apirilaren 16an, zapatua, helariku duko da goizeko 10:00ak inguruan.

Leioatik (Lamiakotik) sartuko da Getxora eta Areeta zeharkatu ondorengatik abiatuko da Makaletako

Apirilak 7

20:00etan Erromoko ANAIK tabernaertsomagia TOR MAGOA + FREDI PAIA + ETXAHUN LEKUE

Apirilak 14

20:00etan Erromoko ANAIK tabernauskalaketan ipuin berotikoak

Apirilak KORRIKA TXIKI

Apirilak 16

10:00etan KORRIKA Getxora iritsiko da Algortako Telletxe plazan:

€ 12.30eanumeentzako birziklatze fabrikatzaileak

€ 14.30eanpaella erraldoia

€ 18.30eanerromeria LUHARTZ



LABURREAN— Lar aldatu dira Goenkaleko protagonisten aurpegiak 1994. urtean telesail mitikoaren lehen kapitulua emittitu zenetik. Hiru urte daroa Loreto Mauleon (Burgos, 1988) teledibutaren telesailik beterranoenean ‘Joana’ pertsonaiaren papera egiten. Arraldeko saltsetan ibiltzeaz gain, interpretazioagaz lotura duten hainbat behar egin ditu donostiarrak: Patxo Telleriak eta Aitor Mazok zuzendutako “La máquina de pintar nubes” eta Imanol Rayoren “Bi anai” pelikuletan, esaterako, eta beste hainbat film laburretan. Teledibutista edo zinemaren behar egiten duen bitartean, ikasketetarako tartea ere izan du Mauleonek: Herri Lanetako Ingeniaritza, dantza eta bikoizketa ikasketak egin ditu.



BAPIRUKE

Aste Santuko koloniak

Apirilaren 18tik 20ra eta 26tik 29ra

Norentzat: 5-12 urte bitarteko umeentzat | niños/as de entre 5 y 12 años.

Non: Algortako J.B. Zabala eskolan | en la escuela J.B. Zabala de Algorta.

Prezioa: bazkideek 30 euro; bazkide ez direnek 50 euro; gutxieneko errenta Getxon 10 euro | socias/os 30 euros; no socias/os 50 euros; renta básica en Getxo 10 euros.

Izena emateko: Bankuko abonarearekin eta Osakidetzako txartelaren fotokopiarekin bulegora etorri eta bertan izen emate orria bete behar da (Euskadiko Kutxa: 3035 0108 06 1081032766) | con el abonaré del banco y la fotocopia de la tarjeta de Osakidetza hay que venir a la oficina y rellenar la hoja de inscripción.

Izen emate epea: bazkideek martxoaren 30etik apirilaren 4ra eta bazkide ez direnek apirilaren 6tik 11ra. | socias/os del 30 de marzo al 4 de abril; no socias/os del 6 al 11 de abril.

Izena emateko ordutegia: astelehen, asteazken eta ostiraletan 10:00 - 13:30; astearte eta ostegunetan 17:00 - 18:30 | lunes, miércoles y viernes de 10:00 a 13:30; martes y jueves de 17:00 a 18:30.



BIZARRA LEPOAN: EUSKARA ELKARTEA
MARTIKOENA KALEA 16, 2.SOLAIRUA - 4.BULEGOA;
48992 ALGORTA (GETXO)
TELEFONOA: 667 540 242 (bulego ordutegian)
POSTA ELEKTRONIKOA: INFO@BIZARRALEPOAN.ORG
BLOGA: WWW.BIZARRALEPOAN.ORG

antolatzailea



babesleak



BIZARRA LEPOAN:

GETXOKO EUSKARA ELKARTEA GARA ETA 15 URTE DARAMATZAGU EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN. BAPIRUKA, GEHITU KIROLA ETA GEHITU KULTURA DIRA GURE EGITASMO NAGUSIAK. HERRIKO EUSKALTEGIEKIN BATERA EGIZU ELKARTEAN ERE PARTE HARTZEN DUGU.

SOMOS LA ASOCIACIÓN DE EUSKERA DE GETXO Y LLEVAMOS 15 AÑOS FOMENTANDO EL USO DEL EUSKERA. NUESTROS PROYECTOS PRINCIPALES SON BAPIRUKA, GEHITU KIROLA Y GEHITU KULTURA. JUNTO CON LOS EUSKALTEGIS DE GETXO TAMBIÉN PARTICIPAMOS EN LA ASOCIACIÓN EGIZU.